


uk

56. zenbakia / 2004 otsailak 29



GEZURRA ARI DU



Argazkiak: **ARGAZKI** Press

liburua

Ezaugarriak:

Hitzaurrea: Joxe Azurmendi
 Hitzatzea: Iñaki Uria
 Idazlea: Lorea Agirre
 200 argazki koloreetan
 200 orrialdetik gora
 Formatua: 270 X 215 mm

Koedizioa:



LIBURUDENDETAN SALGAI

«Elkartasuna, andrearekin bakarrik» (Herrikoia)

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Auto plastifikatuak. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Egunkaria-ren itxiera. Josu Amezaga. Leihatila, Josu Esnaola.
7. LEHEN ETA ORAIN. Algortako etorbidea.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Palmondoak. Asier Mentxaka.
26. BERBETAN. Edurne Pasaban. Unai Brea.
28. ARGAZKIA. Ume iraultzailea. Carlos Terreros.
30. ERREPORTAJEA. Emigratzaileak. Unai Brea.
32. FOTOGRAFIA. Euskal ezkontza. Anabel Méndez.

KULTURA ETA AISIA

38. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea euskal zinemagintzaren euskal entziklopedia. Urtzi Iglesias
39. MUSIKA. Before taldea. Diskoen erresinak.
40. LIBURUAK. Esti Ezkerraren zutabea eta Sonia Gonzalez.
41. KOMUNIKAZIOA. Asteon aldizkaria.
42. SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
43. ELKARRIZKETA. Paul Nicholson. Unai Brea.

EUSKARAZ

44. AKABUKO PUNTE. Jose Zelaiagaz berbetan. Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
46. URIBERTSOAN BARRENA. ALBEkumeak eta gainera Peru Vidalen bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan pintxo bat? Larrabasterako Zutari kafetegian.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. San Nikolas Ikastola, 1985.
54. AITORMENAK. Unai Garate. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Joseba del Villar (kurrikak gure eskualdea zeharkatzen)



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta
 BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / aldizkaria@euskalnet / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

Euskaldunok behar dugun **berria**

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 GETXO
 e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
 Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Bittor Egurola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buenabeña, Jabi Zabala, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarna Lezoan Euskaraz Elkartea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1678-00
ISSN: 1576-6799
 Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopia daiteke, baimen barik, erabat galarazirik dago
 © Boluntzarreta
 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkartearen Topaguneko partaidea da

 <p>Aldizkari honek Bizarna Lezoan Euskaraz Elkartearen dirulaguntza jasotzen du</p> <p>Itxasgane Etxea / Karitatea 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta</p>	 <p>TOPAGUNEa</p>
 <p>GETXOKO UDALA</p> <p>Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>	
 <p>Leioako Udala</p> <p>Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskaraz Zerbitzuko dirulaguntza jaso du</p>	 <p>BERANGOKO Udala</p> <p>Aldizkari honek Berango Udalaren dirulaguntza jaso du</p>
 <p>Erandio Udala</p> <p>Aldizkari honek Erandio Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>	 <p>Aldizkari honek Erandio Berbots Euskaraz elkartearen laguntza jasotzen du</p>
 <p>Bizkaiko Foru Aldundia</p>	
 <p>Fundación Grupo Eroski KONTSUMITZAILEARENtzAT</p>	 <p>Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du</p>

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK 2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Danok emigratzaile

Aldizkari honetako irakurle arduratsuek Keko-ren berri izango du. Izan ere, berak izenpetzen du orain dela urtebete ingurutik hona UKn hamabostean behin argitaratzen dugun komikia (ikus 51. or.). Keko dauka goitizena, eta Dogan Gozel benetako izena. Marraskilari kurdoak da. Turkiako gartzela ezagutu du kurduerazko aldizkari batean marrazteagatik. Zorionez, herrialde hartatik alde egitea lortu zuen, atzerrira joan zen, eta orain errefuxiatu politiko moduan bizi da Madrilan.

Bestelako errefuxiatu asko ere gurera etorri dira azken bolada honetan. Bai agintariak bai guk geuk ere *immigrante* deitzen diegu, baina errefuxiatu ekonomikoak ere badira. Euren jaioterriko bizibaldintza eskasak direla-eta, alde egin beharrean ikusten dute euren burua. Bizimodu ona duen inork ez du sorlekutik alde egin nahi izaten.

Ziur asko, txoriak ditugu emigratze kontuetan adibide argiena. Hauek, ehiztari krudel baten tiroak hiltzen ez baditu behintzat, gizakiak baino askatasun handiagoz doaz leku batetik bestera janari zein tenperatura epelen bila. Txorien moduan, landareen haziak ere munduko bazter batetik bestera ibiltzen dira. Hementxe, esaterako, urrunetik ekarritako palmondoak ditugu. Edo hain gureak uste ditugun indabak, artoa edota tomateak Ameriketatik etorri zitzaizkigun. Merkantziak eta kapitalak ere –gizakiak baino askoz askatasun handiagoz– munduko leku batetik bestera mugitzen dira.


Aldizkariaren zerbaki honetan ohiko atalez gain, emigrazioaren hainbat adibide topatuko dituzu, irakurle. Eta ez ahaztu, gu ere, danok gara, emigratzaile; nonbaitetik gatoz eta gero bagoaz. Ez da hala? ⁴

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuen testuak bidaltzeko: aldizkaria@euskalnet.net • Faxa: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Okerrak zuzenduz
 Aurreko alean Paul Nicholson-en hitzaldia Algortan hilaren 26an izango zela esan genuen. Hitzaldia hilaren 16an egin zen. Barkatu eragozpenak.

Goizero > **berria**



GETXO, 2004

Auto plastifikatuak / Plastikoa aroan bizi gara, dudarik ez. Baina, hainbestera ere! Getxoko kale honetan, lanak egiten dabilzala-eta, plastikoz babestu dituzte autotak, ez dakigu zer hautesz lohitu ez daitezen. Zer pentsatuko dute korrean ugazabek? Autora sartu behar dutenean, zelan egiten dute? Plastikozarra beste barik lurrera bota eta kitto? IHE-Saren mehatxua dela-eta zabaldu den profilaxirako zaletasunak eremu berriak bereganatzen dabil, antza. / Argazkia: Asier Mentxaka

Leihatila

> Josu Esnaola

Gandhi (II)

Gandhik *achuta* edo ukiezin alde egin bazuen ere, inoiz ez zion hinduismoaren kasta sistemari espreski uko egin, eta gaur egun, mundu guztiak demokratikotzat jotzen duen Indian, oraindik orain indarrean dirau. Jaiotzen den unetik Indiako sei biztanletatik bat infernu horretara zigortua dago: bizitza osoan zehar lanik latzenak preziorik merkeenean besterik ezingo du egin. 2002ko lehenengo hiru hilabeteetan bi mila musulmanetik gora erail zituzten Gujarateko kaleetan, Bihar estatuan lurjabeek antolatutako ejertzito pribatuak 500 ukiezin baino gehiago garbitu zituen lansari hobeak eta nekazaritza erreforma eskatzeagatik; hiltzaileak ez zituzten zigortu, jakina. Baina, inork ez du hinduen fundamentalismoaz hitz egiten, are gutxiago orain, ez lerratuen taldea utzi eta Bushen alde azaldu direnean. Halako Indiaren alde borrokatu al zen Gandhi? 4

Iritzia

Iazko otsailaren 20an Egunkaria itxiarazi zuten. Gogoeta eskatu diogu gai horren harira EHUko irakaslea den Josu Amezagari.

Euskaldunon Egunkariaren itxiera urtebete geroago

Urtebetea eman dute espetxean Xabier Alegriak eta Iñaki Uriak, eta urtea bete du itzalpean *Euskaldunon Egunkariak*. Balantzea egiteko garaia dugulakoan, hona iruzkin batzuk. Lehenik, euskalgintzak erakutsi duen mobilizaziorako ahalmena eta kemena aipatuko

«Herri honentzako itxaropen iturri bilakatu da euskararen aldeko mugimendua»

nituzke. Lehen unetik tinko erantzuten asmatu zuen, eta euskal gizarteko erreferente garrantzitsu bihurtu da harrez geroztik. Donostiako manifestazioetatik

hasita herri eta txoko gehienetan egindako lan eskergaraino, urte askotan ikusi gabeko mugimendua jarri da abian, eta herri honentzako (ez soilik euskaltzaleentzako) itxaropen iturri bilakatu da euskararen aldeko mugimendua. Zoritxarrez, euskalgintzak egindako babes eskariak ez du, oraingoz, erantzun egokirik jaso politikagintzaren

mundutik, eta eraso berrien arrisku berean garatu behar du bere lana oraindik ere. Batasuna eskatzen den bitartean, zatiketa da nagusi alderdi politikoen artean. Babesa eskatuz gero, ezintasunaren diskurtsoaz erantzuten zaio. Sindikalgintzarekin gertatu bezala, euskalgintzak ere agerian utzi du euskal politikagintzak bizi duen une korapilotsua.

Bestetik, herri ekimenaren indarra aipatu beharra dago. Toki gutxitan (nik ez dut beste kasurik ezagutzen) sortuko zen hain denbora laburrean egunkari bat, jende xehearen aportazioak oinarri harturik. Ezagutzen ditugun kasuak Euskal Herrikoak dira hain zuzen: *Gara*, duela ia sei urte, eta lehenago *Egin*. Indar hau ez da berria: gogora dezagun herri ekimenetik hezkuntza sistema oso bat sortu zela duela berrogei urte (ikastolak buruan dituen), herri ekimena hizkuntza batuaren sorrera eta garapenearen motorra izan zela, eta harek eman dizkiela helduen euskalduntze eta alfabetatzeari itxura eta egitura. Baina hemen ere euskal administrazioek ez dute maila eman. Duela dozena bat urte *Euskaldunon Egunkariaren* sorrera bera galarazten saiatu ziren; oraingoan ez dira hain ausartak izan, baina gertatuak gertatu ostean, Jaurilaritza, Nafarroako Gobernua zein Pirinio Atlantikoetako Departamentua ez ziren gai izan *Berriaren* inaugurazio ekitaldira buru nagusiak bidaltzeko ere.

Balantzea egitean, beraz, argiak eta ilunak agertzen zaizkigu. Itxaropenerako zantzuak badaude egon, baina baita arindu beharreko zamak eta gainditu beharreko ikuspuntuak. *Euskaldunon Egunkariaren* itxierak eta haren ondorengo gertaerek euskal gizarte zibilaren eta politikagintzaren arteko desfasea agerian uzteko balio izan dute. Hortik, bakoitzak bere ondorioak atera ditzala. 4


Josu Amezaga (Komunikazio irakaslea EHU)



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA



photoshop > metro geltoki berria Andra Mari elizan



Iraganez doa denbora* beti / ALGORTAKO ETORBIDEA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



Argazkian Plentziako txirlerok otsailean eginiko protesta-elkartzea

jendea > Plentziako txirlerok haserre

Plentziako txirla biltze zaleen eta Eusko Jaurlaritzaren artean ez da giro. Prestige petrolontziaren hondamenak, beste hamaika ondorioren artean, txirla biltzea debekatzea ekarri zuen. Hala ere, orain dela gutxi Eusko Jaurlaritzak debeku hori bertan behera utzi zuen, baina profesionalentzako bakarrik. Txirla biltzaile profesionalak Urdaibai aldean ibiltzen dira gehien bat. Plentzian, ostera, ez dago txirlero profesionalik, zale hutsak dira denak. Eusko Jaurlaritzako Arrantza sailetik zin egin ei zieten txila zale hauei arrantzatzeko debekuak altxatu bezain laster jakinaraziko zietela, eta orduan egin ahal izango zutela arrantzan. Txirleruek debekua errespetatu egin dute, baina orain zer eta profesionalak bakarrik egin dezaketela arrantzan, zaleen arrantza-epa abenduaren 31n amaitu zela. Horren albotik, debekuari eusteko zera argudiatu du Jaurlaritzak: profesionalak araztegi garbitzen dituztela txirlak. Zaleek, orduan, euren ere hara eroango dituztela erantzun dute. Proa kirol-nautika elkarte ahaleginean ibili da txirla biltze zale eta Jaurlaritzaren arteko bidea leuntzeko. Txirlak saltsan jan ditugu orain arte: orain, txirla biltze kontuetan ere saltsa. m


cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

begizorrotz > antzeko irudiak mezu ezberdinetarako



Berria egunkariaren aldekokanpainaren irudia

Zer den publizitatea!

Deigarria iruditu zaigu orrialde honetan ikusten dituzuen kanpaina publizitario bien arteko antza ikaragarria, bai, i-ka-ra-ga-rria. Are gehiago, justu orain Egunkaria itxiarazi zutela urtea betetzen denean. Publizitatean ia dena eginda dagoela esaten da, orijinala izatea oso gaitza gertatzen ei zaie gaur egun zenbait publizitate eta mezu sortzailerik. Kanpaina bi hauek denboran izan duten hurbiltasuna oso deigarria iruditu zaigu aldizkari hau egiten dugunoi, eta plagio lotsagabearen susmoa agertu du batek baino gehiagok.


Hamaika ikusteko jaiok gara! m

Juntos vamos a más



PPren irudia 2004ko hauteskundeetarako

kale izendegia > Jesus Mari Leizaola



Berangon badago Eusko Jaurlaritzako bigarren lehendakariaren izena daukan kalea. Jesus M^a Leizaola donostiarra (1896 – 1989) Gipuzkoako Foru Aldundiko abokatua, Eusko Ikaskuntzaren I. Biltzarraren antolatzailea eta Bilboko Udaleko Ogasun Saileko burua izan zen oso gazte. 1922an atxilotu egin zuten Alfontso XIII.aren aurrean Euskal Unibertsitatea eskatu zuelako. II. Errepublikaren garaian, EAJko diputatu, Konstituzioa idazten partaide eta aurreneko Eusko Jaurlaritzan Justizi eta Kultur sailburu jardun zuen. Gerra Zibila zela-eta, Frantziara joan eta euskal erbesteratuentzat laguntza presatatu behar izan zuen. Jose Antonio Agirre zendu zenean, erbesteko lehendakari hautatu zuten 1960an. Politika arloko ordezkari izateaz gain, Leizaola jauna idazle, RSBAPeko kide eta euskaltzain ohorezko ere baguenen. m



**AIBOA
HORTZ
KLINIKA**

Prezio bereziak!
Deitu!

• 94 491 46 75
• 619 844 202

Koleg: 6.465 Koleg: 1.008
Bihotz Sakratua 2 A, behea
ALGORTA
* Getxoko ospitalearen aurrean

etorri
eta
ikusii!



MORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta



BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa
Kizol moda**



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

**TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82**

Zorionak San Nikolas ikastola

Zenbait ekitaldi antolatu ditu aurten **40. urteurrena** ospatzen duen **San Nikolas ikastolak**, orain hasi eta **ekainera arte** tarteka egingo diren ekintzen bitartez 1963tik gaur artekoa gogora ekartzeko

Ikasurte honetan, 2003-04, betetzen ditu San Nikolas ikastolak berrogei urte. Atzean geratu dira 1963ko hastapen haiek: andereño bakarra, bederatzi familiaren etxeetan eskolak ematen. Berrogei urte hauetan, San Nikolas ikastolatik igarotako hamaika umeak gaurkotu, bizartu eta bulartu dira. Eta biharko gonak eta bizarrak hezten darrai San Nikolas ikastola.



Josu Elortegi da gaur egun San Nikolas ikastolako zuzendaria

Biharko, gaurko eta atzoko ume askok badauka zer ospatua; izan ere, ikastola batek ez ditu 40 urte egunero betetzen. Hori ospatu beharrekoa da, eta halan egingo dute ikastolako gaurko arduradunek, eta ospakizunetara hurbildu gura duen orok. Zenbait ekitaldi antolatu dituzte, hil bukaeratik hasi eta ekainera bitartean egingo direnak.

Bederatzi familiaren etxeetan hasi zen ikastola, eta andereño bakarra eskolen arduradun. Bost urte igarota, ikasleak 202 ziren eta gelak zortzi. Bolondresen etxebizitzak txiki geratu ziren, eta txaletak eta etxe osoak alokatu zituzten orduan, baina hauek ere laster txiki. Bidebarri kaleko lokala erosi zuten gero, baina urte batzuk pasata, honetan ere ez ziren denak sartzen.

40 urte heziz hazten

1970-71 ikasurtea hazkunde handienaren garaia izan zen, "Hezetasan" auzoko lur eremu bat erosi eta 18 ikasgela, administrazio bulegoak, liburutegia, gimnasioa eta jolas-tokiak biltzen zituen eraikin bat egin zuten eta. 1973an 500era iritsi zen ikasle kopu-

rua. Hiru urte gehiago, eta BBBko gelak sortu ziren, eta geroago haurtzaindegia.

1981-82 ikasurtean izan zen ikasle kopuru handiena, ia 1.500 haur. Hazkundera larregikoa zen eraikinerako, eta ikastolako BBBko ikasle eta irakasleak Getxo III euskara hutsezko institutu publikoa egin zen, Aixerrota institutua.

«1981-82 ikasurtean eduki zuen ikastolak ikasle kopuru handiena: 1.490 ume»

Lotu barik, 2002ko Ibilaldia antolatu zuen San Nikolas ikastolak, eta ospakizun hartatik urte bi igaro direnean, beste ospakizun baten murgildu da: 40. urteurrenaren ospakizuna. Orain helburua hauxe da:

mailaz mailako 3 lerroak mantentzea, eta hazten jarraitzea. Josu Elortegi da gaur egun ikastolako zuzendaria, azken bost urteotan legez. "Gure inguruko ikastolen artean gure dugu esperientzia gehien, baina horrek ez gaitu zahar egiten", dio Elortegik.

Umeen eta gazteen iturritik edan du San Nikolas ikastolak 40 urtean: horrela ez dago zahartzerik. Zorionak, eta iturriak jarrai dezala ura dariola! m

OSPAKIZUN EKITALDIAK

- **Otsailak 29:** Oinezko martxa Getxotik 10:30ean, txitxiburduntzia San Nikolas enparantzan 12:00etan.
- **Martxoak 28:** Euskal Ezkontza Algortako kaleetatik, behia erre eta enparantzan eskaini.
- **Ekainak 12:** 40. urteurrenaren jai erraldoia San Nikolas ikastolan bertan.

Agur eta ohore, **Bost**

Hamabost urtean Bost tabernako buru izan eta gero lanbidea utzi du Jabi Mierrek



Jabi Mier, Mike Nedok ezkutuan Guggenheim-en eskegi zuen lanaren kopia batekin estalirik

1990eko apirilak 26: ordutik Jabi Mier izan da *Bar, bi, hiru, lau bost* tabernaren jabea, zerbitzaria... Hastapenetan tabernari beste izen bat jartzekotan izan zen, baina familiakoek *heavyegia* zela esan, eta ez zion jarri: *Tasca-gau* hitz joko zen. Arrazoiak arrazoi, beste izen bat jarri zion, jaigiroko izena behar zuen derrigor, eta kantuak legez, *Bar, bi, hiru, lau...* bost jarri zion. Taberna ixteko erabaki latza hartu du Mierrek; hormako argazkiak kentzen zegoela negar egin duela aitortu digu, "*tabernagaz dudana*

maitasun-gorrotto istorio bat da".

Orotzaipenik onenaz galdetuta, zera erantzun digu: "*Urtarrilaren 19an, nire urteguna ospatzeko, eta taberna ixteko erabakia sinesgai bihurtzen nengoela, hiru egunez izan nuen taberna zabalik. Baina ez da hori egiten dudana lehen aldia*". Tabernan jarraituz gero infernutik oso gertu amaituko zuela konturatu ei da; "*esperientzia honek eman dit eman beharrekoa, orain beste esperientzia batzuk bizi behar ditut*". 40 urte betetzear ditu, "*ez pentsa oraindik heldu naizenik*". m

J. A. AGIRRE OHOREZKO HERRIKO SEME IZENDATUKO DUTE

Udal Gobernuko Batzarrak udal osoko bilkuran proposatuko du Jose Antonio Agirre Getxoko Ohorezko Herriko Seme izendatzea. EAJK, EAK eta EBK eman diote onespina proposamenari. Lehendakari izan aurretik, 27 urte izan zen Jose Antonio Agirre y Lekube Getxoko alkate. Udalak Getxon jaioa ez den bati ohore hau ezartzen dion lehen aldia da. Aurretik, Jose Luis Ugarte, mundua zeharkatu zuen marinela, izendatu zuten ohorezko herriko seme, baina berau getxoztarra da. Martxoaren 6an izango da Agirrerren jaiotzaren mendeurrena.

Jose Antonio Agirre lehendakaria



ALGORTAK DU OSAKIDETZAKO LEHEN ERRETINOGRAFOA

Algortako anbulatorioan dago Euskal Autonomia Erkidegoko osasun sare publikoko erretinografo bakarra. Tresna berri honek begi hondoa aztertzeko punta-puntako teknologia darabil. Egondaldi esperimentalak izango du aparatua Algortako anbulatorioan, eta diabetes gaixoen isutasun arriskua kontrolatzea izango du helburu nagusi. Anbulatorioan erretinografoaren bitartez batutako datuak Gurutzetako ospitalera bidaliko dira, intranet sarearen bidez. Erretinografoaz 10 minutu nahiko dira begi hondoen azterketa egiteko; tresna hau barik ordu erdi behar da azterketa-rako, aurretik begi ninia handiarazi behar da-eta. Aparatu berriagaz, osteria, ez.




ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

Herriko moda gaztea

Hora Zulu dauka izena Algortan disenatzaile gazteek sorturiko arropa salduko duen denda berriak. Martxoaren 11rako zabaltzeko asmoa dute Ibon Garagarzak eta Miren Begoñe Bilbaoko denda. Festa antolatzen dabilta ordurako, eta moda munduan ohi denez, desfilea egingo dute. Hilaren 11n izango da, beraz, Teilagorri enparatzen. Kataluniako bi disenatzailearen eta Bilboko baten arropak erakutsiko dituzte: hurrenez hurren, Miriam Ponsa, Syngman Cuala eta Marta Teran. Bestalde, dandan 9 disenatzaile gazteren arropa-sorta jarriko dute salgai. Hora Zuluren bazkideetako baten, Ibon Garagarzaren, hitzetan, *“disenatzaile gazteen elkargunea izan nahi dugu eta euren lanak jendea-erengana hurbildu”*. m

Miren Begoñe Bilbao eta Ibon Garagarza



BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxa: 94 430 74 03

Mikel Gorrotxategi > Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeko idazkaria

“Ikerketa egitean aurkitu ditugun gauza bitxiak ere jarri ditugu, asko”



Argazkian, Mikel Gorrotxategi

Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeko idazkaria da. Sopuertan jaio zen orain 40 urte, baina Algortan bizi da. Euskal Filologia ikasi zuen. Beste ardura batzuetan ibili bada ere, 12 urte darama Euskaltzaindian. Getxoko Udalak udalerriko toponomia batzeko beka eskaini zuen, eta zuzentzaile eta testugile legez ibili da bertan.

—Zein izan da zure lana?

—Udalak 2001ean eskaini zuen toponimia beka, eta Amagoia Aurrekoetxea eta Sofia Susori eman zitzaion. Euskaltzaindiak fitxa eredu bat utzi zien, ikerlariei aholkua ematen saiatzen gara eta. Amagoiak gero beka utzi zuen, eta Sofik niri eskatu zidan testuak eta zuzenketak egiten laguntzeko.

—Zer izan da zailena?

—1259 leku-izen batu dituzte, XVII. mendeko dokumentazio osoa eta 1920 arte dagoena islatu dute. Ikerketan, izenak, noiz eta zein dokumentutan aurkitu diren agertzen zen soilik. Toponimia liburu gehienak datu bilketak dira, gu saiatu gara harago joaten, interesgarriagoa egiten. Izenen gaineko azalpena jarri dugu, linguistikoa kasu gehienetan, bai eta ikerketa egitean aurkitu ditugun gauza bitxiak ere. Horren albotik, liburuia irakurriko duenak akatsik ikusiko balu -gaizki kokatu dugulako etxe bat, leku bat kokatu ez dugulako...- esker-

tuko genioke, bihotz-bihotzez, horren berri helaraztea.

—Toponimiari dagokionez, Getxok berezi-tasunak ei ditu.

—Inon ez bezala baserri izenak aldatzen dira; Euskal Herrian nahiko iraunkorrak izaten dira, nahiz eta jabea aldatu. Getxon zeharo aldatu dituzte. Bestalde, dokumentazioan XIX. mendean etxe asko agertzen dira, baina gaur ez daude zutik, pisuak eraiki baitira bertan. Gero, soroak, landak... kokatzea ezinezkoa da, Eleizalde eta Aizkorri ingurua salbu. Gainera, jende asko kanpotik etorri garen, oso gatxa da lehengo baserriak, sorak... non zeuden eta haien izenak dakien jendea aurkitzea. Artxiboetan ez datorrena batzea zaila da.

—Bilketa lana zaila izan da, orduan.

—Getxon oso toponimia berria dago orhar. Getxo ez zen herri aberatsa, herrixka bat zen, ez zegoen konbenturik... hirietan dokumentazio zaharragoa egoten da, horrelako lekuak, erakundeak, daudelako. Eraikin berri asko egin dira. Gainera, kurioa da, bereziki Getxo euskaldunagoa zen garaian (XVIII) izenak itzuliago agertzen dira dokumentuetan. Gazteluzahar oso gutxitan agertzen da

«Euskaraz gehien egiten zenean, leku izenak itzuliago agertzen dira; orain kontrakoa»

dokumentuetan, Castillo edo Castroviejo agertzen da. Nire teoria da, haien artean euskaraz egiten zutenean naturalki izenak itzultzen zituzten idazterakoan. Orain, aldiz, kontrakoa gertatzen da.

—Aurrera iezaiguzu bitxikeriaren bat.

—Konborta, Gobela ibaiaren ondoan zegoen leku bat zen, Jolaseta atzean. Konborta gaztelaniratu zen Conporta, eta gero Konporte. Gaur Getxoko lekuri altuenean dagoen kalea da. Erreka ondotik mendi puntaraino joan da. Izen zahar asko kale-izendegian batu dira, batzuk lekua aldatuta. m

Begirale euskaldunak



Berrogei lagun inguru dabilta begirale izateko euskarazko ikastaroetan parte hartzen

Aisialdiko 23 elkarte getxoztarrek eta udaleko Euskara Zerbitzuak Getxo Euskalduntzeko Hitzarmena sinatu zutenetik urte bat igaro da. Bizarra Lepoan euskara elkartearen esku dago orain hitzartutakoa dinamizatzea. Hainbat ekintza eta eginkizunen artean, aisialdi taldeetan begirale izateko euskarazko ikastaroa jarri dute martxan. Bi urtetan egiteko ikastaroa da eta eskolak Urtxintzak ematen ditu, Bizkaiko Astialdiko Hezkuntza Eskolak. Astialdiko elkarteetan euskaraz jarduteko begiraleak trebatzen ditu ikastaro honek, beraz. Ikastaroen arrakasta dela eta, bi talde osatu dituzte antolatzaileek.

Talde bakoitza 15-20 lagunez osatuta

dago, 18 eta 24 urte bitarteko jendea. Hamabostean behin batzen dira, zapatu eta domekako saioetan. Begiralegaiak alde teorikoan eta praktikoan trebatu beharko dira, eta bigarren urtean 4 hilabeteko praktikak egin beharko dituzte aisialdi talderen batean.

Urte bikoa den ikastaro honetan parte hartzeak 288 euro balio du, eta bete behar den baldintza bakarra hau da: eginbeharrereko praktikak Getxoko aisialdi talderen batean egitea. Horrez gain, getxoztarra izan ezker, edota bertoko talderen batean aritzen direnei ikastaroaren balioaren erdia itzuliko zaie. Hori bai, diru hori itzultzeko, ikastaroaren bi urteak bete beharko dira. m

UNIBERTSITATEAREN ETA UDALAREN IKASTAROAK: BAT EUSKARAZ

Deustuko unibertsitateak eta Getxoko udalak bigarren urtez jarraian sinatu dute kultur aisialdirako ikastaroak eskaintzeko hitzarmena. Lau ikastaro izango dira, bat euskaraz. Musika, antropologia, milurtekoak eta paisaiaren gaineko ikastaroek martxoan hasi eta ekainera arte iraungo dute, eta Villamonten emango dira. Paisaiaren gainekoa izango da euskarazko ikastaro bakarra. Izan ere, arduradunek argudiatu zutenaren arabera, iaz bina antolatu ziren euskaraz eta erdaraz, eta euskarazkoak bertan behera geratu ziren ez zelako talderik osatu. Udalak 4.500 euro ordainduko dizkio Aisialdirako Institutoari ikastaro hauek aurrera eramateagatik.

XV. EMAKUMEEN ALDEKO JARDUNALDIAK GETXON

Martxoan da Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko hila, eta martxoaren 8a aukeratutako eguna. Hala ere, getxoztarrei egun bakarria labor geratzen zaie ospatu beharreko guztiak ospatzeko, eta horregatik hilaren hasieratik ia erdira arte iraungo dute XV. Emakumearen Aldeko Jardunaldietako ekitaldiak: emakumeak protagonista dituzten argazki erakusketak, zinea, antzerki ikuskizunak eta beste hainbat antolatu dituzte (ikus *Agenda*). Algortan, Areetan eta Erromon egingo dira ekitaldiak. Emakumeak protagonista izateak ez du esan gura emakumei bakarrik zuzendutako ekitaldiak diren: hori, esan barik ulertzen dela uste du askok... baina beharbada ez guztiok.

RENAULT ocasión

IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON

“0 Km” dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. **RENAULT**en bermearrekin.

Getxo I Institutuaren ondoan

RENAULT
BILBO BERRI
Bizkerre/k. z/g. - ALGORTA
Tel.: 94 430 68 81
Jon Arróspide, 20 - DEUSTO
Tel.: 94 448 39 00

Euskara suspertzeko ekitaldiak

Leioako Euskara Zerbitzuak Amets Berria, Epi y Blas eta Biltoki, herriko aisaldi taldeekin batera, hileko lehen larunbatetan umeei zuzendutako ekitaldiak antolatuko ditu herriko txikien artean euskara suspertzeko asmoz. Honen helburua herrian euskarazko aukerak, euskarazko eskaintza, handitzea da. Lehenengo urratsa umeei zuzendutako hau da eurak izanik adin talderik euskaldunena, hutsune handia baitaude aisiadiko jarduerak euskaraz burutzeko.

Horrela, martxoaren 6an (larunbata), "Kandelen Argipean" taldeak eskaintako ipuin kontalari saioa izango da, arratsaldeko 5etan, Sabino Arana Kultur Aretoan; eta apirilaren 3an Txan Magoa, leku eta ordu berean. Sarrera doan izango da.

Bestetik, Euskara Zerbitzuak ere, martxoaren 8aren inguruan herriko Andrak eta Lila-gorriak taldeen laguntzaz emakumeen inguruko ekitaldi bi antolatu ditu, gazte eta helduei zuzenduta. Martxoaren 10ean (eguztana), "Mundu zabaleko emakume idazleak ezagutzen" izeneko hitzaldia emango du Begoña Bilbaok Mastitxu Euskaltegian arratsaldeko 8etan. Martxoaren 17an (eguztana), *Nona hoo neska!* bakarrizketa Txireneren eskutik leku eta ordu berean. Ekitaldi hauetako sarrera ere doan izango da. m



Ikasle bat eskolak hartzen

San Jose autoeskola ezintasunak gaindituz

Ez da erraza, ez, halako autoeskola mota aurkitzea. Izan ere, Bilbon eta ezker aldean baten bat badago ere Uribe Kostan bakarria da Leioako San Jose autoeskola. Hemen ohiko zerbitzuez gain, gorputz ezintasunak dituzten pertsonak prestatzen dira.

Autoeskola hau Ezker aldean hasi zen 1962. urtean, eta duela bi urte Leioan irekitakoa kateko bosgarrena da. 80. hamarkadan ekin zioten ezindu fisikoak prestatzeari, autoeskolako kide den Anak dionez, *"gero eta ezindu gehiagok nahi zuten gidabaimena atena, eta momentu hartan ez zegoen eskari horri aurre egiteko autoeskola egokiturik"*.

Mugikortasun mugatuta duten pertsonen gidatzea errazteko egokitzapenak egiten

dira auto barruan. Autoeskolako arduradun Inigok azaldu duenez, *"bolantean esku bakar batekin gidatzeko heldulekua; oimpekoak edo pedalak ordezkatzeko dituzten eskuzko kontrolak; eta martxak oimekin aldatzeko pedalak"* dira San Jose autoeskolako auto egokituak dituen aldatetarik. Hauetako esker, zenbait kasu izan ezik, *"ia ezindu guztiek gida dezakete auto hau"*. Oro har, Anaren arabera, *"autoeskolara datorren orok lortu ohi du gidabaimena"*. Norberaren autoa gidatzeko, ordea, azterketa praktikoa zein teoriakoa gaintzea ez da nahikoa. Medikuari azterketa batek zehaztuko baitu norberaren ezintasunaren arabera autoak izan behar dituen egokitzapenak. m

Euskarak ez du adinik



Argazkian, euskara ikasten ari dabilzan lagunak

Mastitxu Euskaltegian azkenaldian talde berezia dago: 30 erretiratutako gogora ekarri dituzte gaztaroko ikasle garaiak, astero hiru ordu euskara ikasten emanez. Leioako Euskara Zerbitzuak bultzatuta, jubilatuei zuzendutako euskara ikastarok abiarazi zituzten joan den azarotik aurrera, eta arrakasta ikusita, jarraipena izango dutela uste du Joxe Belmontek, Euskaltegiko Zuzendariak.

Ikastaro hauen bidez *"oinarrizko kontzeptuak —egunak, zenbakiak, agurrak...— irakatsi nahi dira"*. Hala ere, hizkuntza berrian murgiltzeko motibazioa da garrantzitsua. Horregatik, *"saioak atseginak eta dibertigarriak izan daitezkeen ahalegintzen gara"*. Euskaltegiko Zuzendaritzatik, hain zuzen, ikasle 'berrien' jarrera goraiatu dute; *"oso*

motibatuta daude eta ekintza guztietan parte hartzen dute; halaber, talde berriaren eta euskaltegiaren artean harreman estua sortzen hasi da".

Masti klik

Gizartearen aztura modernoak, teknologia berriak eta euskara uztartzen dituen proiektua hasi berri du Mastitxu Euskaltegiak. Ikasleak ordenagailuaren bitartez ikasten du, eta elkarrizketak, bideoak, irakurketak eta tutoretzak direla medio osatzen du hezkuntza prozesua. *Masti Klik* proiektu berriak norberaren beharretara moldatzen den ordutegiaren abantaila du. Joxe zuzendariak ordutegiaren onurak azpimarratzen ditu, izan ere, *"ikasleak erabakitzen du noiz ikasi eta zenbat denbora erabili"*. m

ETXEKO? ELEKTROTRESNEN? KONPON -
Lacofris, s.l. SERVITEC
 Y MARKA GUZTIAK
 Y 24 ORDUTAN ERANTZUNA
 Y 3 HILABETEKO GARANTIA
 Y 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA
 & 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

KURKUDI LIBURUDENDA
Euskarazko irakurgai
 Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
 T: 944 913 402

amesti 7sl
 [eraikuntzak]
 [etxeetako berrikuntzak]
 [gremioen koordinaketa]
 Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
 48990 ALGORTA

ERROTULOAK
ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK
 egiten ditugu
 e-mail: hirustab@euskalnet.net
 Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
 taberna
 eguneko menua eta afariak
 Lehendakari Agirre,2
 T: 94 463 00 45 - LEIOA

BETIKO IKASTOLA
 — 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
 — Ingelera 4 urtetik aurrera.
 — Frantsesa DBHn.
 — Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
 — Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
 — Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...
 Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Iritzia

Amaia Arriaga >

Emakumeok kalera!



Erandon kaleak apaintzeko eskulturak jartzeari ekin diote eta zer otuko eta kale izendegiko pertsonaien irudiak egitea.

Oraingo Jado eta Obieta jaunak haragitu edo gauzatu edo zaizkigu euren izeneko kaleetan. Laster izango da Aldekoa apaiza ere bere plazan. Kontua da Obieta, Jado eta Aldekoa, niretzat behintzat, leku izenak besterik ez zirela, burdinezko gizon handiek euren nortasuna erakutsi didaten arte. Eta kontua da emakumeok bakar batek ere ez duela merezi izan gurean kaleari izena emateko ohera eta, beraz, ez dugula izen propioa duen emakumezko irudirik egiteko aitzakiarik izango.

Bai, badakit. Euskadi plazan "amatxu" guztien omenezko eskultura handia jarri dute, baina horrek larritu baino ez nau egiten. Amatasunari gorazarre, jauntxoak kale erdi-erdian, apaizak plaza zaindari... eta emakumeok ikustezin. Atzerantz tiraka dabilzkigun sentipena dut nik.

Eta martxoaren 8aren inguruan gizon-emakumeon arteko berdintasun aldarria nagusituko dela aprobetxatuz, herriko kaleetan gizonen izen (eta irudi) gehiagorik ez jartzeko erabakia har dezaten eskatzen diet udal agintariei, eta zabalduko dituzten hurrengo kaleei emakume izenak jartzeko, bertako toponimorik ez bada, behintzat, harik eta parekotasuna lortu arte. Horretarako meriturik egin duen Anttoni, Mari, Karmen edo Izarorik izango da gurean bada!

Azken oharra: gaitza ez da Erandiora mugatzen, bestela, aldizkari honetako kale izendegien atalean, zenbat emakume izen ikusi duzue? 4

Javier de Isusi > komikigilea

Europako 600 komikigile bildu dituen sariketan 20 finalisten artean egon da



Goian, Javier de Isusi. Behean, bere lan bat

Arkitektura amaitu ondoren urtebeteko bidaia egin zuen Hegoameriketan zehar eta hantxe erabaki zuen bizi osoan gustukoa izan duen komikigintzan buru-belarri sartzea.

"Txikitatik egin ditut marnazkiak eta komikiak, baina ikasketak direla-eta, ez dut astirik izan sakon lantzeko. Orain erabakia hartua dut, komikigintzatik bizi nahi dut". Duela bi urte murgildu zen bete-betean komikiaren munduan, eta harezkerok hamaika proiektu aurkeztu du han eta hemen. Hasi eta laster lortu zuen Portugaletako Komiki Lehaketan 4. Saria, eta horrek adore eman zion, baina hasitako bidean aurrera egiteko benetako indarra, iazko urrian Glénat argitaletxe frantsesak antolatutako Europako lehiaketan finalista izateak eman dio. "Niretzat sekulako lorpena izan da Europako 600 komikigile bildu dituen sariketan 20 finalisten artean egotea".

Urtarrilean Anguleman izan da Javier, komikigintzako Europako jaialdirik handienean, bere lanak erakusten. Izan ere, komi-

kiak Frantzia du merkaturik zabalena eta komikigintzatik bizitzeko aukera ere bada han. Gure inguruan, ordea, merkaturik oso txikia da, itxaropen izpi batzuk sortuz badoaz ere; horren adibidez aipatu dizkigu Astiberri argitaletxeak arlo honetan jaso dituen sariak, Getxoko Komiki Azoka, edo irudigileen elkarte sortu izana.

«Orain Chiapasen girotutako La pipa de Marcos presatzen ari da»

Gaur egun zertan dabilen galdetuta, "Euskal Herriko kantuak leku bereziki lotzen dituen liburu-diska argitaratuko du Suak, eta ni irudiak egiten ari naiz". Bestalde, Chiapasen girotutako La pipa de Marcos komikia argitaratuko du, Astiberri argitaletxearen eskutik, hurrengo Durangoko azokarako. Patxadan dabil horretan lanean, Getxoko kultur etxean komikigintzako ikastaroa ematearekin eta esku artera datozkion bestelako lanekin tartekatuz. Javierrentzat garrantzitsua da egindako lanarekin gustora geratzea. "Komikiak egin abala ari naiz nola egin ikasten, komikigintza beste karrerara bat baita".



San Joseko garbitzaileak greban

Azpikontrataturako enpresako langileak administrazioari soldatekin parekatzeko eskatzen dute

Urtearekin batera eman zioten grebari hasiera, klinikako laguntzaileen egoera bideratu dutela baina garbitzaileek bere horretan jarraitzen duela salatuz.

Garbiketa lanak egiten dituzten emakumezkoak direla eta hilean 700 euroko soldata baino jasotzen ez dute.

«Udalek diote ezin diotela eutsi zerbitzuak zuzenean kudeatzeari, kostua ikaragarri igoko litzatekeelako»

nez, familiaren dirusarreretan euren osagarri baino ezin daitekeela izan adierazi dute, eta egoera horrek eragin zuzena duela emakumeen bizimoduan, ezinezkoa da-eta bizitza-proiektu propioak osatzea. Hori salatu diote Udaletxeari.

Alkateak langileei aurreko plenoan jakinarazi zien arazoa ez dela bakarrik Erandiokoa, eta hartutako erabakiek beste udalerriri batzuetan ere eragina izan de-



Langileak udaletxean protesta egiten

zakenez, EUDEL udalen elkarteak jarraitzen jarraitzen eman dituela; bestalde, udalek ezin diotela eutsi zerbitzuak zuzenean kudeatzeari, kostua ikaragarri igoko litzatekeelako. Dena den, gai honetan genero kontuak azpimarratzea ez dela bidezkoa iritzi zion alkateak.

“MEMORIAL JORGE BLANCO” KROSA

XV. edizioa beteko du aurten Erandioko Atletismo Eskolak Jorge Blanco atletaren omenez antolatutako herri lasterketak. Martxoaren 7ko goizeko 10etan hasiko da Tartanga kalean, eta leku berean amaituko da. Iaz adin guztietako 1.000 bat partaide izan zen, eta aurtengoan ere beste horrenbeste espero dute. Korrikalariak aurreko egunetan eman beharko dute izena.

INTERPRETAZIO ZENTROA MARTIARTUKO DORREAN

Erandioko Udalak hitzarmena sinatu du Euskal Herriko Unibertsitateko Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Sailarekin Martiartuko Dorrean Leinuei eta Bandoei buruzko Interpretazio Zentroa eraikitzeko.

“PAKITARENTZAT BAKARRIK” ANTZEZLANA

Maitasuna gaixotasuna dela pentsatzen duen emakume baten solasaldi komiko eta samurra eskainiko du Itziar Ituño antzezleak datorren martxoaren 2an, arratsaldeko 8etan, Bekoa ikastetxeko aretoan. Euskara Zerbitzuak eta Erandioko Emakume Taldeak elkarlanean antolatuta dute ekitali hau martxoaren 8ko egitarauaren barruan. Sarrerak dohainik eskuratzen dira, aurretiaz, Kultura Sailean.

Jose Unzurrunzaga Astigarraga

HORTZ?KLINIKA

Tel. & Faxa: 94 460 06 21
Andikoetxe 2, behea ezkerrean
ALGORTA

OSAEIDE?HORTZ?KLINIKA
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskuinean 94 94 430 76

Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

BEROGAILU ETA ITUR-

HIRURAK

T: 430 53

Sarrikobaso 15

GOIZEAN

Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Tellexe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

Erica Likete > Barnetegia-ko partehartzailea

“Agian, bi Barnetegia egon dira”

Hiltegi bat ezagutzea eta Legebiltzarrera eginiko bisita izan dira gutxien gustatu zaizkion Barnetegia-ko ekintzak

Hemeretzi urteko sopeloztar hau Barnetegia (ETB-1) saioko lehiakiderik gazteena izan da. Algotan jaio zen, baina Sopelanan bizi da. Publizitatea ikasten dabil Leioako campusean. Euskara ikasi nahi zuelako eta saioak bere ikasketekin harremana zuelako aurkeztu zen Barnetegia-ra. Hamar urtegar jarri zuen estreinekoz zeharkako xirula ezpainetan, eta orain dela bi urtetik hona Sopelana Musika Bandan jotzen du.

Euskaltegira bidean aurkitu genuen, eta ohiko duen irribarraz hartu gintuen. Euskaltegiko kideek animatu ei zuten telebista-ko saioan partehartzera: “ostegun batean izan zen, euskaltegian nengoela; ikaskideek joateko esan zidaten, nire ikasketekin harremana zuelako eta gainera euskara ikasi nahi nuen ez...”.

Saioari buruz, aurretiaz jakin bazekien reality-show horietakoa izango zela, baina euskara ere ikasi egin dutela aitortu digu. “Audientzia behar dute, jendeak saioa ikustea, normala da. Orduan arazoak eta rolloak sartu behar dituzte. Casting-ean ohartarazi ziguten Gran Hermano modukoa izango da, baina euskaraz”.



“Casting-ean ohartarazi ziguten, Gran Hermano modukoa izango da saioa, baina euskaraz”

Legebiltzarrera bisita, aspergarriena Kamarek ez dutela 24 orduz grabatzen ere kontatu zigun, “guk bagenekien noiz dauden grabatzen eta noiz ez; batzuetan kamarako tipoa eta mikroa eusten zuen tipoa ikusten dituzu, oso barregarria da”. Grabatu ez dutenagaz beste Barnetegia bat egin zitekeela dio: “agian bi Barnetegia egin daitezke, ikusi ez diren gauza pilo daude, gure benetako gauzak uste dut ez direla agertu”.

Ekintzen artean gogokoen izan dituenak ureko motorrak eta Alaitz eta Maideren bisita izan dira. Eta gutxien gustatu zaizkionak, “Hiltegi batera joan ginenean eta Legebiltzarreran izan ginenean; aspergarria izan zen”. Gotzonek irakasle gogorraren papera egiten duela esan zigun eta Andoni Aizpuruk, ostera, “konprensiboarena”. Lagunek euskaraz egitea “txorrada” bat bezala ikusten dute, baina berak ez die kasurik egiten. m

Ateak zabalik institutuan



Jose Luis Ruiz institutuko zuzendaria bere bulegoan

Urteroko usadio bihurtu da Ateak zabalik eguna ospatzea Sopelana Institutuan. 1996an sortu zenetik, urtero-urtero, eta beti izen-emateko epea zabaltzen den garaian, institutuak ireki egiten ditu ateak. Eki-men honen asmoa institutuaren eskaintzen eta baliabideen berri ematea da, bai ikasle berriei eta bai gurasoei ere. Aurten, otsailaren 17an egin zen, baina egun horretan ikasle berrien gurasoak zituen jomuga. Ikasleek eurek maiatzean edukiko dute txanda.

Aurtengo Ateak zabalik berezia izan zela adierazi digu institutuko zuzendari Jose Luis Ruizek. “Hezkuntzako lege berria, LOCE delakoa, indarrean sartu da, eta beraz, LOGSE iragana da orain; aldaketa hori ondo azaldu behar zitzaien gurasoei, eta horregatik izan zen berezia”. Bestalde, Lehen-Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara pasatzen dira ikasleak, eta aldaketa nabaria

denez, gurasoen jakinmina asetu behar dela uste du zuzendariak. Ateak zabalik eguna arrakastatsua izan zela adierazi zuen zuzendariak, “la guraso guztiak hurbildu ziren, bikoteka gainera, aitak eta amak. Hiru-lau orduz ibili ginen zalantzak argitzen. Horrelako ekitaldiak behar-beharrezkoak direla uste dugu”. Institutuak 300 bat ikasle dauzka eta 42 irakasle eskolak ematen.

LOCE, hezkuntza lege berria Bost urteko epean sartuko da guztiz indarrean LOCE delakoa, eta LOGSEkiko aldaketarik nabarmenenak promozio, ebaluazio, eta titulazio alorretan dakartza. Datoren bi urteetan, DBHko 1. eta 3. ikasturteetan izango dira aldaketak, eta hurrengo urteetan, DBH 2.ean eta 4.ean sartuko da lege berria indarrean. Bost urtean guztiz finkatuta egon behar du LOCEk. m

AIB-BODYBOARD LEHEN TXAPELKETA EGINGO DA HILAREN 6 ETA 7AN SOPELANAKO HONDARTZAN

Bodyboard Internauten Elkarteak (AIB) lehen aldiz antolatuko du Bodyboard Txapelketa. Sopelana hondartzaren olatuetan izango da zita, martxoaren 6an eta 7an. Sei mailatan banatuko da txapelketa: emakumeak, seniorrak, open mota, 18 urtetik beherakoak, 16 urtetik beherakoak eta Drop-knee. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, derizgorrezkoa izango da federatuta egotea parte hartu ahal izateko. Izen-ematea martxoaren 4a baino lehen egin behar du Bodyboard txapelketan parte hartu gura duenak, AIB elkartearen web-gunean. Bestetik, partehartzaile guztiek %50eko beherapena eukiko dute Sopelana kanpian.

Informazio gehiago: www.aibodyboard.com



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza


Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net



4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturbarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Loteria Sopela

Iparragirre 6, Sopela

[berango]

Miren Dobaran > Berangoko alkatea

“Gauzak egiteko modua aldatu da sailetan emakumeak dauzelako”

**Miren Dobaran Urrutia berangoz-
arra da, eta gaur egun, bere herriko
alkatea. Otsailean lau urte bete dira
kargua onartu zuenetik. Ikasketei
dagokienez, euskal filologoa da.
33 urte dauka. Uribe Kostako alka-
teen artean, emakumezko bakarra.
Batera gutxitan agertzen diren
ezaugarriak ditu Miren Dobaranek:
gaztea, emakumezkoa eta alkatea.**



Argazkian, Miren Dobaran

—Eskualdeko emakumezko alkate bakarra zara. Desberdintasunik nabaritu duzu harremanetan edo?

—Agintzeko orduan bai; gauzak egiteko eta antolatzeko modua beste bat da. Hemen nagoenetik igertan dot gauzak askoz arinago egiten direla, igual antolaketa desberdina dalako. Esate baterako, informazio batzordeak, gauzak landuta eroaten doguzanez, askoz laburragoak direz. Lehen, zinegotzia nintzanean, batzordean egoten ginen ez dakit zenbat ordu lau tontakeri ebazteko... Orain ez da alkatea emakumea dala bakarrik, lehenengo alkate ordea emakumea da, bigarrena bere bai, idazkaria, ekonomista eta arkitektoa bere emakumeak. Gauzak egiteko modua aldatu da departamentu guztietan emakumeak dauzelako momentu honetan.

—Herritarrek zelan hartu dute?

—Batzuk ez dakie alkatea nor dan bere, zoritarrez edo zorionez. Ikusten dabenean emakumea dala, gaztea, sorpresa hartzen dabe. *¿Qué haces aquí?* galdetzen dabe, herriarentzako lan egin, ez da hain arraroa. Bestela, igual emakumeen artean animosoago dabilzala bere igerten dot, ikusten dabelako emakume gehiago gagozela, beste ikuspegi batez egiten da politika...

—Egin ezin dozun zer gauza egin gura zenu-

ke udalerrian?

—Hainbeste gauza... Polikiroldegi bat egin behar dot. Zorionez berangozarrak badauke modua beste polikiroldegi batzutarra joateko, Sopelara edo Fudurara. Ez dogu egiten diru aldetik ezin dalako bideratu momentu hone-

«Badago alderdi bat udalean egon beharko leukeena, eta ez dago»

tan. Bestetik, azken urteotan jende asko etorri da hona biziten, bertakoak gaur egun %18 bakarrik gara. Herri hartzailea gara. Eta lortu behar dugu hona datorren jendea sentitzea berangozarrak. Ez hona etorri, eta pisu bat erosi. Bakarrik sentitu behar da hemengoak, eta hori apurka-apurka lortzen da.

—Eta zer egin duzu egin gura ez zenuena.

—Nik egin, holan, zuzenean ez dot egin... Gustako litzakit berangozarrak guztiak udalean ordezkaturata egotea, eta momentu honetan

ez dagoz. Badago alderdi bat udalerrian ez dagoena eta egon beharko leukeena, aberasgarria izango litzakeelako. Nik ez daukat modurik; falta dira batzuk eta pentsaten dot egon behar dabela.

—Zelan bizi da euskara Berangon?

—(Hasperen egin ostein) Oso txarto. Ezaguera aldetik, aurrerapausoak egon dira azken urteotan; gure eskola publikoan D eredu dago bakarrik, umerik gehienak, %70k, euskaraz dakie, baina erabilera hori baino askoz txikiago da. Gazteen artean euskarak ez dauka prestigiorik. Euskararen kalidadea ikaragarri txarra da. Lan asko dago egiteko.

—Haritz bat landatu zenuten, baina ez zen emetu. Aurreikuspen txar bat edo...

—*Keba*. Ez, hemen zozter bagara dinamikoak gara eta beti egin dogu aurrera. Herri gaztea da Berango, dinamikoak, eta aurrera egingo dogu.

—Badakigu galdera okerra dela, baina interesia ei dauka. Zelako soldata daukazu?

—Beste alkate batzuk baino gixiago. Kantidadea ez dizut esango, publikoa delako eta eskura dagoelako. Soldatak ez du hemengo lana justifikatzen, militantea izan behar dozu. 24 orduz naz alkate, eta ez 8 orduz bakarrik. Goizko hiruretan sute bat badago, han egon behar dot, auzokide bati argia joaten bazaio niri deitzen dit telefonoz *“ez dekot argirik”*, hori Getxo baten ez da gertatzen. m

BERANGO

- Biztanleak: 5.650
- Herriaren azalera: 8,7 km koadro
- Udala: 13 zinegotzi. EAJ-EA 8, PSOE 2, PP 2, EB 1
- Euskaldunak eta ia euskaldunak: 2.543 (%45)
- Erdaldunak: 3.107 (%55)

Plentziako aurrekontuak %13ko igoera onartu dute: 4.320.856 euro

Plentziako udalbatzak 4.320.856 euroko aurrekontua onartu du 2004 urterako. Iazko aurrekontuagaz alderatuz gero, %13 egin du gora aurten; hau da, 568.410 euro handitu da kopurua. EAJ, EA eta PPren aldeko botoagaz onartu ziren aurrekontuak, Independenteeek kontra bozkaturata.

Diru kopuru handiena Hirigintza eta Inbetsioetara bideratuko dute: ia 500.000 euro. Arlo honetan aurreikusten dira udala eraberritzeko proiektua, frontoia zaharberitzea edota bide, espalo eta argiztatze berriaren proiektuak. Bestalde, ur hornikuntzarako sarean egin beharreko garbiketa eta konponketei dago zuzenduta aurrekontuen beste kopuru garrantzitsu bat: 120.200 euro. Euskara, jaiak eta talde kulturalentzako aurreikusten duten kopurua 420.000 eurokoa da. Horren albotik, kirol-egoitzetara eta kirol taldeetara 245.942 euro bideratuko dituzte.

Plentziako Independenteeek, beraz, au-



Kultura eta jaietarako 120.200 euro bideratuko dira

rrekontuaren aurka eman zuten botoa; alde batetik, gastu-publikoari mugarik ez zaiola jartzen uste dutelako; bestetik, udalak enkante publikoaren bitartez esleitu ditu zenbait udal-jabego, eta Independenteen iritziz, hobe zen baliabide ekonomiko urriak dituen jendeari eskaintzea. m

TXOTXONGILO ETA ZIRKOARI BURUZKO ERAKUSKETA URDULIZEN

“Zirkoa eta Txotxongiloak” erakusketa ikusgai izango da Urdulizen. Erakusketaren epea martxoaren 2tik 14ra bitartekoa da. Corrado Masacci da erakusketaren egilea, eta erakusketaz gain, autoreak berak saio berezi batzuk eskainiko ditu, hiru eguneko iraupenekoak. Saiotarako taldeak osatzea aurreikusten dute antolatzaileek. *“Zirkoa eta Txotxongiloak”* erakusketa ibiltaria da, eta era berean, didaktikoa.

ZAPATUETAN ERE ZABALIK EGONGO DA LIBURUTEGIA BARRIKAN

Liburutegia erabilteko joera indartzeko, zapatuetan ere zabaltzea erabaki dute arduradunek. Hala ere, ekimen berri hau, hasieran, hileko bi zapatutan bakarrik gauzatuko da: lehenengo eta azkenengo zapatuetan, hain zuzen. Umeentzako jarduerak antolatuko dituzte zapatu goiz horietarako, 11:00etatik 13:00etara. Ume eta gazteentzako zabalduko ditu atek Barrikako liburutegiak, beraz, gustuko dituzten ekintzak egin ditzaten: margoztu, ipuinak entzun, olgetan ibili, irakurri...

aldai

**TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK**

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

20º ANIVERSARIO URTEURRENA

AENOR
Empresa Registrada
ER-1891/2001

AENOR
Gestión Ambiental
CGM-02/006

KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

Ots. 29 - Martx. 14

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: aldizkaria@euskalnet.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

[herriak]

URDULIZ

Txakurrentzako hotela

Argazkian Jon Prieto, hoteleko jabeetako bat (T: 94 676 52 64 / www.kuatropatas.com)

Gizakiaren lagunik leialenak ei dira txakurrak, eta zintotasun horrek ondo merezi du ordainsaria. Opor garaian, baina, urte osoko zintotasun hori erraz ahazten du zenbaitek, eta lau hankako lagun jatorra edonon eta edozelan utzi ondoren, hamaika aitzakia ustel erabiltzen du egindakoak zurrizteko. Orain, ordea, aitzakien beharrik ez dago: lagun zintzoa ondo zainduta uzteko eskaintza berezia du Urdulizeko *Cuatro Patas* txakurrentzako egoitzak. Orain dela 3 hilabete eskas zabaldu zuten Jon Prieto eta Maria Altunak egoitza hau: txakurrentzako hotela, ileapaindegia, trebakuntza zelaia, berezitasunez beteriko denda (Agatha Ruiz de la Pradaren diseinuak eta guzti), txakurrentzako 19.000m koadro-

ko ingurua, errekatxo eta haritz eta urkiz osatutako baso baten ondoan.

Cuatro Patas Hotela

Hotela 400m koadro ditu; bertan 50 logela, erdiak txakurrentzako berogailu bereziagaz. Guztiak zeramikazkoak, izkina bakoak, ozonozifikazio sistemagaz (garbitasun-usain kontuak medio), araztegi biologikoa... Txakur bakoitzeko eguneko 12 euroko prezioa du. Gela bakoitzak webcam du, edozein lekutik zure txakurra ikus-teko aukera, beraz. Bestetik, 800m koadroko trebakuntza zelaia du; trebaketaz gain, Agility ikastaroak daude martxan, euskaraz ere bai. Zelai hau Agility txapelketa baterako erabiltzea daukate buruan, Bizkaiko lehena izango litzatekeena. m

GORLIZ

“Siamesas pero no revueltas” antzezlan

Gorlizko erakusgelan “*Siamesas pero no revueltas*” antzezlan izango da gozagai hilaren 8an. Egun horretan bertan ospatzen da Emakumearen Nazioarteko Eguna. Munduan legez, Euskal Herrian ere ospatzen dugu. Euskal Herrian bezala, gure eskualdean ere hainbat eta hainbat ekitaldi aurreikusten dira egun horretarako. Gorliztarrek ere ospakizunagaz bat egin gura dute: hori dela eta izango da ikusgai “*Siamesas pero no revueltas*” antzezlan arrastiko 19:00etan erakusgelan. Ikuskizunaren ondoren, txokolatada egingo da. m



TXIBERRI

edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



Taberna Bern


Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

Ajuria

taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

GETXO

▶ XV. EMAKUMEEN ALDEKO JARDUNALDIAK.

▶ **Erakusketa. Emakume Errefuxiatuak** argazki erakusketa ACNURen eskutik. Erromoko erakustaretoan. Martxoaren 1etik 17ra arte.

▶ **Zine-kluba. Frida** filmaren proiektzioa eta foruma. Getxo Antzokian eta Areetako Gran Cineman, hurrenez hurren, martxoaren 3 eta 4an. 20:00. Sarrera: 2,60 euro.

▶ Proiektzio eta solasaldia.

Eskaladoras hitzaldia Pati Blasco eta Leire Aguirreren eskutik. Algortako kultur-etxean. Martxoak 5, barikua. 19:00.

▶ **Cinema Paraiso. Pollo al horno** film laburra eta *Osama* film luzearen proiektzioa jatorrizko azpitituludun bertsoan. Getxo Antzokian. Martxoak 5, barikua. 22:00, 2,60 euro.

▶ **Antzerkia. Sandwiches de Pepinos** antzezlan, Getxoko Antzerki Eskolaren “Emakume Bideak” zikloan, Hezgaitez konpaniaren eskutik. Getxo Antzokian. Martxoak 6, zapatua. 19:00. Sarrera: 3 euro.

▶ **Zine-kluba. La Seguridad de los Objetos** filmaren proiektzioa eta foruma. Getxo Antzokian eta Areetako Gran Cineman, hurrenez hurren, Martxoak 10 eta 11. 20:00. Sarrera: 2,60 euro.

ERANDIO

▶ **Antzerkia. Pakitarentzat bakarrik** antzezlan. Aktorea: Itziar Ituño. Bekoa ikastetxeko gimnasioan. Martxoak 2, martitzena. 20:00. Udal Euskara Zerbitzuak eta Erandioko Emakumeen Elkarteak antolatuta. Txartelak aitez aurretik: 94 489 01 40 edota 94 489 01 28 telefonoetan.

BERANGO

▶ **Erakusketa. La Mujer en el trabajo** erakusketa BBKren eskutik. Erakustaretoan. Martxoak 1etik 14ra.

▶ **Hitzaldia. Hombres y mujeres, ¿hay un lugar para el encuentro?** hitzaldia Maite Garcia Miranda, Osaginez elkartearen presidentearen eskutik. Martxoak 8, astelehena. 18:30.

▶ **Hitzaldia. La mujer inmigrante** hit-



▶ CINEMA PARADISO

Barikuero zinema jatorrizko bertsoan

Film bat bere jatorrizko bertsoan ikusi eta gozatu gura duenak badu horretarako aukera Getxon. Izan ere, Cinema Paraiso egitasmoari esker barikuero azpitituludun (inor gal ez dadin) film bat eskaintzen dute Gtxo Antzokian. Oraingo honetan, era horretako hurrengo filma ikustera joateko gonbitea egin gura dizuegu; *Las mujeres de verdad tienen curvas* (Zuz.: Patricia Cardoso; hizk.:gaztelania-inglesa; adin guztientzat). Gainera, gozatzeaz gain poltsikoa ez du asko zulatuko. Sarrerek 2,60 euro balio dute.

• **Non:** Getxo Antzokian • **Noiz:** Barikuero

zaldia CITEko kide Natalia Garciairen eskutik. Martxoak 9, martitzena. 19:00.

▶ **Bideo-forum eta afaria. Flores de otro mundo** bideoa eta foruma Edurne Lopezen eskutik. Martxoak 12. 18:30. Berangoko Emakumeen elkarteak afaria antolatuta du 21:00.

▶ **Ikastaroa.** Kotxearen oinarriko mantenuari buruzko tailerra. Martxoak 13 eta 14. 12:00-13:30. Prezioa: 3 euro.

BARRIKA

▶ **Bilera.** Emakumearen Eguna ospatuko dute Liburutegian. Kafea, tertulia eta sorpresak. Martxoak 8, astelehena. 17:00.

GORLIZ

▶ **Antzerkia. Siamesas pero no revueltas** antzezlan erakusgelan. Martxoak 8, astelehena. 19:00. Ondoren txokolatada.

ERAKUSKETAK

GETXO

ZINEMA

GETXO

▶ **Sorgin bat etxean.** Getxo Antzokian. Martxoak 7, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

▶ **El Cid: la leyenda.** Getxo Antzokian. Martxoak 14, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90

PLENTZIAGORLIZ gorliz

▶ **Papa Canguro.** Martxoak 6, zapatua. 17:00.

▶ **Un sueño para ella.** Martxoak 13, zapatua. 18:00.

▶ **Dias de futbol.** Martxoak 5, barikua. 22:00.

▶ **Carmen.** Martxoak 12, barikua. 22:00.

BESTERIK

GETXO

▶ **Bertsolaritza.** III. Abra saria. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Martxoak 13, zapatua. 19:00

▶ **Ikastaroa.** Aretoko dantzak euskaraz, Bizarra Lepoan-en eskutik. Izena emateko: 94 491 43 57

▶ **Hitzaldia. Orquideas del Pais Vasco.** Alfred LLorenteren eskutik, Basozaleak elkarteak antolatuta. Algortako kultur-etxean. Martxoak 8, astelehena. 19:30.

▶ **Hitzaldia. Antimilitarismoa atzo eta gaur.** Getxoko talde antimilitaristak antolatuta, Egizu egitasmoaren barruan. Algortako kultur-etxean. Martxoak 9, martitzena. 20:00.

SOPELANA

▶ **Munari II. Herri lasterketa** Izen-ematea martxoaren 9tik 19ra. 18:00-21:00. Hall Kulturalean. Martxoaren 21ean lasterketa.

namaika hida

zenbat gara elkarte

San Vicente 2
4. solairua
48001
94 423 75 91

1 Kafe Antzokia Bilbo
2 Kafe Antzokia Ondarroa
3 Ondarroako Arrigorri itsas ostiatua
4 Algara konpartsa
5 Zaparrada Gaztegunea
6 Olgetan Umegunea
7 Elkartearen zerbitzu, ikastaro eta tailerrak
8 Bakaikuko etxea
9 Bilbo Hiria Irratia 96.0 Fm
10 Zenbat Gara aldizkaria
11 Gara argitalerxea

namaika aukera



Palmondoak

Oasiak, hondartza paradisiakoak eta tropikoa dakarzkigute gogora palmondoek. Izan ere, askok han dute jatorria. Gure klima eta ingurua ez dira eurentzako aproposenak, baina halan eta guzti gurera egokitu eta hemen hazi dira, gure paisaiaren zati bihurtu arte. Hementxe daukazue gure eskualdean aurkitu ditugun palmondo ale eder batzuk.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



30 urte dauzka, eta dagoeneko 8.000 metro baino gehiago daukaten sei menditara igotzeko gauza izan da. Edurne Pasaban tolosar gaztea euskal mendigoizaletasunaren osasun ederra erakusten duen azken aleetakoa da. Ingeniari teknikoa da ikasketaz, eta halaxe izan zen lanbidez ere, Himalayarako bidaia luzeek bizimodua aldarazi zioten arte. *“Bi hilabeteko oporrak hartzea ezinezkoa da edozein enpresatan”*. Orain, *“Euskal Herrian nagoenean”*, familiak daukan landa-turismoko etxe batean egiten du behar. Euskal Herrian ez dagoenean, beriz, zerura hurbiltzeko ahaleginetan ibiltzen da, indar tektonikoen gizakiontzako eronka moduan paratutako Himalaya eta Karakorum mendikateetako gailurrak zapaldu guran. Zer esanik ez, gitxi batzuentzako eronka da hori. Tartean, Edurne.

Edurne Pasaban

Gailurrerantz

Testua: **Unai Brea**

—*Aztarnak dokumentala aurkezten zabilta herririk herri. Zer da Aztarnak?*

—Beharbada lehenengo aldian ikusten duen ezin du asmatu nik zer esan nahi izan dudan. Azkeneko urteetan nire bizitza zer izan den aurkeztu nahi nuen, Himalayaren eta zortzimilekoen inguruan. 1998an egin nuen lehen espedizioa, eta baneukan gogoia dokumental bat egiteko, baina ez dokumental normala. Nire barrua erakutsi nahi nuen, zer sentitzen dudan hara joaten naizenean, zer diren niretzat lagunak, zer diren garrantzitsuak...

—*Zuen bidaia batek hilabete bi irauten du, baina prestakuntzak askoz lehenago hasiko dira, ezta?*

—Lehen denbora gehiago behar zen, orain gutxiago. Normalean, bi hilabete lehenago prestatzen hasita, ondo. Agiri kontuak, janaria, materiala... han ere gauzak askoz azkarrago egiten dira orain.

—*Dirua lortzeko zelan moldatzen zara?*

—Hasieretan, lehen bidaietan, norberak ateratzen du dirua herrian kamisetak salgai ipiniz edo dena delakoa eginez... Nire kasuan, orain ezagunagoa naiz eta errazago daukat. Mundu honetan, zerbait

lortzeko beti jarri egin behar da, eta pentsatzen dut frogatu egin behar dela gauzak egiteko gauza zarela. Niri hori gertatu zait: emaitza batzuk ditudala ikusi ondoren, atea ere ireki zaizkit. Sekulako atea ere ez, e? Ni ez naiz honetatik bizi eta asmorik ere ez daukat esponsorretatik ateratzen dudan diruaz bizitzeko. Hone-tarako bizi naiz, ez honetatik.

“Mendian lehiakortasunik ez dagoela dioena oker dabil”

—*Eta zenbat diru izaten da?*

—Bidaia baten prezioa milioi bat pezeta-edo izan daiteke...

—*Beti esaten da mendigoizaletasuna lehiakortasunik gabeko kirola dela, mendigoizalearen eta mendiaren artekoa ez bada behintzat, baina ematen du azken urteotan badagoela halako zozter, ezta? Nor den hona igo den lehehengoa, nor lehenengoa igoko oxigenorik gabe...*

—Hala uste dut, bai. Lehiakortasunik ez dagoela dioena oker dabil, beti gabiltzala-ko zerbait erakutsi nahian. Kontrako jarrerara badago, baina zuk diozuna ere bai. Nik badakit bihar lehen kanpamentura

bi ordutan iristen banaiz, biharamunean norbait egongo dela ordubete eta 40 minutuan egiten saiatuko dena.

—*Himalayara joaten zara zu askotan. Zer diote hangoek etengabeko europar eta iparramerikar oldeaz?*

—Ondo hartzen dute, azken batean beraien diru iturria delako, beraien lanbidea. Pakistanera, lehenengo urtean, Dorre

Bikien kontrako eraso zela eta, oso jende gutxi joan zen, ia inor ez, eta pentsa, garrantzitsuak horiei guk ematen diegu urte osoko diru iturria. Gu joatea nahi dute.

—*Baina euren bizimodu eta filosofiak talka egiten dute gure izateagaz, ezta?*

—Bai. Gu mendeabaitetik goaz eta gauza asko eramaten ditugu. Beraiek bideo bat ikusten dute eta zur eta lur geratzen dira. Hori kaltegarria da alde batetik, euren ohiturak puskatzen ditugulako.

—*Zer prestakuntza mota egiten duzu hemen?*

—Prestatzaile bat daukat, eta bi orduz-edo entrenatzen dut egunean. Gainera,



“Beldurra izaten dugu baina ez dugu agerian uzten”

kirola egiten dut: bizikleta, gimnasioa, korrika... eta ahal dudanean Pirinioetara joaten naiz, ibiltzera, eskiatzera...

—*Oxigeno barik ibiltzeko prestakuntza bereziren bat behar da?*

—Ez. Egokitzapena ondo egiten bada... Hemen ez dago inongo prestakuntzarik horretarako.

—*Psikologikoki egon beharko duzue ondo prestatuta, baina...*

—Nik beti esaten dut horrelako mendi batera igotzeko, %75 psikologikoa dela, eta %25 fisikoa. Gauza asko jasan behar dira, asko sofritzeko prest egon behar da. Inori ez zaio gustatzen hiru egun ematea denda barruan, 7.000 metroan, zorro baten barruan, kanpoan sekulako haizea dagoela eta ura egiteko behar den elu-

hotz, neke eta abarren ostean, gailurretik metro gitxira atzerantz bidea hartu behar denean zer sentitzen den baizik...

—Haserrea noski, eta inpotentzia. Hainbeste ahalegin pikutara... Baina jakin egin behar da atzera egiten. Oso une latzak dira. 8.000 metroan zaude eta aitzakiak bilatzen hasten zara, bai jaisteko bai igotzen jarraitzeko. Dena aztertu behar da, eta erabakia ez da bi minutuan hartzen. Askotan zure pentsamenduaren edo zure nahiaren kontra egin behar duzu, ez dagoelako beste irtenbiderik. Eta itzuli egin behar duzu. Argi dago beti ezin dela gailurrera heldu.

—*Beldurrik izan duzu?*

—Beldurra beti izaten dugu, baina ez dugu agerian uzten. Behe-kanpamentuetan gaudenean ez dugu aipatzen, baina beharbada han gaudenotako norbait ez da bueltatuko. Horrek beldur ematen du. —*Hango handitasunak ere zozter sentiaraziko du, ezta?*

—Bai. Han oso libre sentitzen naiz, eta aldi berean txikia. Baina beti pentsatzen dut zorionekoa naizela han egoteko aukera edukiteagatik.

—*Ez dizu amorrurik ematen zure lorpenez berba egitean andrazkoa zarela nabarmendu beharrak? Zure merituko handiengoak ei dira andra zarelako...*

—Pixka bat bai. Azken batean, zergatik ezagutzen dute Edurne? Sei zortzimilakotara

“Askotan pentsatu dut: hainbeste sofritu behar dut nik hau egiteko?”

tu behar dut nik hau egiteko?”. Baina tira, gustatzen zaidana da, eta azken emaitzak merezi du.

—*Mila bider galdetuko zizuten zer sentitzen den gailurrean...*

—Bai, hala da...

—...*baina nik ez dizut hori galdetuko, hainbeste prestakuntza, diru, bidaia,*



Ume iraultzailea Carlos Terreros

Hauxe duzue Carlos Terreros argazkilarik gazteak helarazi digun irudia. Aurrengo lehenengo egunetan egin zuen Algortan. Gauza jakina da; gizakia berez iraultzaile jaiotzen da beti. Urreak igaro ahala, berriz, gizarreak berak “bide zuzenean” ibilarazten gaitu gehienok.

Emigrazioa, begi-bistakoa da, gorantz doa nabarmen Euskal Herrian, eta gure eskualdea ez da salbuespen. Lehen, Hegoamerikatik edo Afrikatik etorritako pertsona bat gure albotik igarotzen zenean, begira geratzen ginen, zerbait exotiko izango balitz bezala (eta, zertarako ukatu, hala zen). Orain, guztiz ohituta gaude; emigrazioaren fenomeno gero eta onartuago dago, herri xehearen aldetik behintzat (agintari eta instituzioak bestelako kontua dira). Hala ere, berba asko egiten da etorkinez, baina gitxi etorkinakaz. Guk, oraingoan, euren bizimodura hurbildu gura izan dugu.

Emigrazioa

Euren azal barruan

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Hegoamerikarrak batez ere

Gurera ailegatzen diren etorkin gehienak Hegoamerikatik datoz. Arrazoi argi bat dago horretarako: ez daukate arazorik hizkuntzagaz. Hala ere, herrialde guztiek ez dizkigute euren seme-alabak hein berean "bidaltzen"; Kolonbia, Ekuador eta Boliviatik datoz gehien, baina horrek, jakina, ez dauka zer ikusirik hemengo egoeragaz, hangoagaz baizik: oso eskasa da. "Ia jasanezina", etorkin askok diotenez.



Inoiz pentsatu duzu zelakoa izango litzatekeen zure bizimodua urruneko herrialde batera joatera behartuta egongo bazina, maite dituzunak bertan (eta pobre) utzita? Lana bilatuko zenuke noski, eta segurantzian topatu ere bai, baina zelakoa izango litzateke lanetik kanpoko denbora? Zelan bilatu lagunak, zelan bete lanak libre utziko litzatekeen herri-minez gainezkako ordu gitxi horiek? Horixe da, ba, gure artean gero eta kopuru handiagoan dauden etorkinen kinka. Ez beharbada larriena, baina ezta garrantzi gitxiak ere.

Leku askotan, eta Uribe Kostan ere bai, arazo hori zelanbait arintzeko modua aurkitu dute etorkinek, beste behar afektibo bat (etxeokaz berba egitea) asetzeko

«Asko deitzen dute, familiakoakaz berba egiteko premia itzela daukate»

erabiltzen duten lekuan hain zuzen: lokutorioak. Edo bestela esanda, telefonoz deitzeko guneak. Algortan badago bertako eta inguruko herrietako etorkin asko erakartzen dituen bat, eta hantxe hartu gaitu Mariu Castañeda ugazabak.

Beharrak sortutako ideia

Castañedaren bizitzak joan-etorri bikoitza ezagutu du. Buenos Airesen jaioa, Algor-

tan hezia, nerabezaroan berriro Argentinatua eta azkenean hango egoera jasangaitzak atzera hona bultzatutakoa. Laugarren etapa hori hasita, berak eta senarrak etengabe deitzen zieten han utzitako senideei, baina hemen kabina gitxi (eta garestiak) daudela iritzi zioten, eta lokutorio baten beharra igarri zuten. Hoberena, noski, euren ipintzea.

Urte bi dira lokutorioak lehen pausak egin zituenetik, eta hasieratik etorkinek ondo hartu zuten. Denboraz, gainera, deitzeko leku ez ezik, topagune ere bilakatu zitzaizen. *«Asko deitzen dute, familiakoakaz harremanean egoteko premia itzela daukate»*, azaldu digu Mariu Castañedak, *«askok egunero deitzen dute, egun batzuetan bi*

bider ere bai». Jendearen etengabeko joan-etorriak elkar ezagutzea dakar, eta hortik adiskidetasuna sortzera urratsa bat baino ez dago. *«Deitu behar ez duten egunetan ere etorten dira batzuk, elkarregaz egoteko beste barik. Hau da lagunartean egoteko daukaten lekua, ez dituzu tabernetan poteak hartzen ikusiko»*.

Tabernetan ez ibiltzearenak hainbat arrazoi dauzka. Bata ohiturei dagokie; Hegoa-



Goian, Mariu Castañeda bezero batekin Algortako bere lokutorioan. Azpian, Getxoko kaleetan hartu ditugun irudi batzuk.



merikan ez da hemen bezain arrunta. Bestea, berriz, ekonomiari lotuta dago: *«Bizirauteko ezinbestekoa dena izan ezik, dirua hara bidaltzen dute»*.

Ahalik eta diru gehien bialdu beharrak bizi-baldintza desegokietara bultzatzen ditu etorkinak: *«Elkarregaz alokatutako etxe-*

bizitzeko agiriak lortu. Azkenean, eskuratu egin zituen, eta baita neskalaguna eta seme-alabak ekartzea ere, baina ez zaio has-tapeneko garaien gogortasuna ahaztu: «Gurpil-zorua da. Agiri barik enpresariak ez dute lanik emoten; lan barik, agiririk ez. Ordu asko emon behar izan nituen lanean,

«Bizirauteko ezinbestekoa dena izan ezik, diru guztia hara bialtzen dute»

bizitzetan bizi dira, hiruzpalau lagun logela berean». Lokutorioak eskaintzen duen zerbitzuetako bat, hain zuzen, dirua bidaltzeko aukera da.

Fernando Tapias 31 urteko kolonbiarra dugu etxera dirua bidaltzen duenetako bat. Orain lau urte ailegatu zen Bizkaira, eta lehen bietan ezin izan zituen bertan

gau eta egun, eta denetariko beharretan [Fernandok ekonomia-ikasketak ditu egin-da], hemengoek gura ez dituztenetan batez ere». Fernandok uste du bertakook ondo hartu dugula. *«Euskaldunak orain gitxi arte izan dira emigratzaileak, eta hori igarri egiten da, batzuek amnesia daukatela dirudien arren»*. m

Lokutorioa: dei merkeak

Algortako Villamonte plazan dago Baires lokutorioa –Buenos Airesen omenez dauka izen hori–; Mariu Castañeda ugazabaren berbetan, *«edonork telefonoz dei egiteko lekua, beste barik»*. Hori bai, etorkinei lotuta egoten dira lokutorioak, euren dira-eta gehien erabiltzen dituztenak. *«Bertokoek badaukate telefona etxean, ez daukate urten beharrik»*, dio Castañedak. Hala ere, gero eta gehiago dira kanpoan dauden senideei deitzeko lokutoriora jotzen dutenak. Askoz merkeagoa da eta.

«Etorkinakaz lotzen den arren, lokutorioa edonork telefonoz deitzeko lekua da»

«Telefonikak lapurtu egiten du, beti egin du eta ahal duen bitartean egiten jarraituko du». Ozenago esan daiteke, gardenago ez... Baires lokutorioak beste konpainia batez dauka kontratua, eta horregatik deiak telefono-kabina batean baino %60 merkeago gerta daitezke. *«Beste abantaila bat erosotasuna da»*, azaldu digu Castañedak, *«ez dago zertan ordu eta erdi euripean berba egiten egon»*.

Baires lokutorioko ugazabak dioskunez, Telefonikak behin baino gehiagotan egin dio eskaintza eurakaz elkartzeko, *«baina ezetz esan diet»*. Zalantza barik, gorantz doan negozioa da. Emigrazioaren areagotzeak, segurantzian, edukiko zuen eraginik horretan.





Euskal ezkontza

Argazkiak: **Anabel Méndez**



Anabel Méndez

Erretratueta eta ezkontzetan aditua den Anabel Méndez argazkilaria eibartarrak Lea-Artibaiko Amankomunazgoaren Inmigrazio Zerbitzuaren enkargu bat jaso zuen: 2004ko egutegia ilustratzeko euskal ezkontza tradizional baten irudia egitea. Ezkontzak berezia izan behar zuen, ordea: protagonistak azken urteotan urrunetik eskualde hartara bizitzera joandako lagunak izango ziren. Lanaren helburuak: integrazioa bultzatzea eta jatorri ezberdinetako lagunok elkarrekin ederto bizi gaitzkeela erakustea. Argazkiotan, Lea-Artibaiko jendea ezezik Brasil, Bulgaria, Ekuador, Errumania, Ghana, Kolonbia, Maroko, Senegal eta Venezuelako euskaldun berriak dituzue.

www.anabelmendez.com







zineeskola

Oskar Fernández

Zinema sarrerari etekina atera (II)

Aurreko idazkitxoan esaten genuen bezalaxe, zinemako aretoan argiak pizten direnean, gezurra dirudi arren, filma ez da amaitzen. Jakina, irudi gehiagorik ez da agertuko pantailan, baina orduan fotograma horiek guztiak pil-pilean iraungo dute gure bihotzean edo burmuinean, edo bietan, norberaren izakeraren arabera. Hau unerik aproposena izan daiteke ikusitako filmaz hausnartu egiteko. Istoria bere indar guztiaz daramagu orduan gure baitan: pertsonaien nortasunak, harremanak eta jarrerak, ikusitako ekintzak, filmaren giroa, piztu dizkigun impresioak, iritziak eta sentimenduak... berri-berri dugu guztia. Filmaren hausnarketa eta azterketa egin ahal izateko eredu simple bezain eraginkorra proposatuko dugu. Eredu honek bi atal nagusi ditu: lehenengoa azterketa "denotatiboa" deitzen da, eta bigarrena "konnotatiboa". Atal denotatiboa ahalik et zehatzen azaldu beharko dugu ikusitako istorioak zer kontatzen duen, zein den filmaren gairik garrantzitsua, alegia. Horren ondoan edo inguruan, zer motatako gaiak dauden, zer istorio garatzen den eta nola, zuzendariak egindako proposamenak barruko koherentzia ote duen aztertuko ditugu, bai eta kontuan hartu beharreko beste alderdi guztiak ere: antzezpena, istorioaren giroa edo egokitzapena, soinu banda, argiztapena, planoak, kameraren mugimenduak eta kokaera. Honaino aztertutako guztiak, gutxi gorabehera, antzeko iritzi edo impresioak izango dituztela susma daiteke. Alabaina, bigarren atalean barneratzen garenean, desadostasunak eta arrazoibideak oso desberdinak izango dira, zeren eta erantzun ahalik eta egokiena eman beharko baitiogu galdera garrantzitsuenari: Zuzendariak zer esan edo azaldu nahi du? 4

Gure zinegileak

Euskal zinemagintza gai duen lehen hiztegi entziklopedikoa aurkeztu du C. Roldanek


Los vascos y el séptimo arte izena du Carlos Roldan iruindarrak idatzi duen azkeneko beharra. Euskadiko Filmetegiak argitaratu duen hiztegi entziklopedikoa da hau, eta bertan, euskal jatorria duten eta zinemagintzagaz zerikusia daukaten pertsonak agertzen dira.

Hiztegiak 185 sarrera ditu, eta bertan, zuzendarien, aktoreen, gidolarien, produktoreen, muntatzaileen, soinu banden egileen eta zinemagintzan parte hartu duten idazle edo eta margolarien izenak bildu ditu, jarduera profesionala eta euren beharrak aztertuz eta baita bitxikeria ugari ere agertuz.

«Egileak zuzendarien, aktoreen, gidolarien, musikarien, muntatzaileen, idazleen etab.en erreferentziak bildu ditu»

Bildutako izen horien guztien sarrerez eta fitzez gain, egileak euskal zinemaren historiaren azterketa egin du hitzurre moduan; 1896 inguruan Miarrizten aurkeztutako lehen filmetik hasita, XX.eko 90eko hamarkadaren urte distiratsuetara.

Lehenago egindako azterketen jarrai-



Amalur filmaren kartelaren zati bat

pena da behar hau, izan ere, filosofia eta letretan lizentziatua den Roldanek euskal zinemagintzaren produkzioen gainean ziharduen "La producción cinematográfica vasca: Desde Amalur hasta nuestros días" deituriko tesia atera zuen 1996an.

Egilearen ustez, behar hau zuzendari eta aktore euskaldunek bizi duten egoera paregabearen erakusle da. m

LIBURUA

- **Izenburua:** "Los vascos y el séptimo arte"; Euskadiko Filmetegiak argitaratua.
- **Egilea:** Carlos Roldan.
- **Edukiak:** Euskal zinemagintzagaz zerikusia daukaten pertsonen jarduera profesionala eta euren beharren azterketa.

Ez galdu > "Real women have curves"

- **Nazioarteko Emakume Langilearen eguna dela-eta, Zinema Paradison pantailaratuko da film hau**
- **Non:** Getxo Antzokia • **Noiz:** martxoak 12 • **Ordua:** 20:00



Josefina Lopez-ek idatzitako antzezlan bat du oinarri film honek. Josefina berak Los Angeles hirian josteko tailer batetan pairatu behar izan zuen egoera islatzendu lanak. Filmear, Patricia Cardoso kolombiarra topako dugu kamerak zuzentzen. Berak zinemaratzten duen istorio honetan, bere bizitzak ere badu isla, neurri batean. Patricia UCLA unibertsitatean (L.A.) egin zituen ikasketak, beka baten laguntzaz. Bere lehen film luzea du "Benetako emakumeek kurbak dauzkate". Film honek nazioarteko hainbat sari garrantzitsu irabazi ditu: besteak beste, Sundance-n Epaimahaiaren Sari Berezia, bai eta Publikoaren Saria ere; eta Donostiako Nazioarteko Zine Jaialdian Gazteriaren Saria. Film atsegina eta kalitatezkoa da. Unibertsitatea eta lan mundua direla eta, neska gazte batek bere familiarekin dauzkan gorabeherak azaltzen, era oso egokian azaldu ere.



Argazkian, taldeko kideak zuzeneko emanaldi batean

Before-n lehen diskoa

Creation du izena eta udarako egongo da plazan

Nondik dator izena: "Ez dauka itzulpenik", aitortu digu Inigok: "nik asmatu nuen, sendoa iruditu zitzaigun, biribila". Inigoren esanetan, "taldeak eman behar dio esanahia izenari eta ez izenak taldeari". **Noiz hasi ziren:** Bospasei urte daramatza talde getxoztarrak, "lagun artean batu eta gaur arte". **Taldeko kideak:** Renato Torre (bateria), Dann (bakarko-gitarra), Ignacio Portilla (gitarra-arritmiko), Inigo Martin (baxua) eta Dani Perez (ahotsa). **Gustukoa dute:** Metal melodikoa jorratzen dute, ingelesez abesti gehienak. Tartean bada euskarazko baten bat. Blind Guardian, Rage, In Flames eta Edguy moduko en eragina dute.

Eginiko diskoak: Creation lehen diskoa grabatu

berri dute, eta merkaturatzeko, disketxe bate- ren deiarren zain daude orain. Udan kalean egotea espero dute; "denbora luzea daramagu grabatzen, gure kontura egin dugu eta poltsiko- ak ia hutsik ditugu dagoeneko". 9 abestik osatzen dute diskoa. **Besteak beste, jo dute:** Bilborock aretoan, Azkenan, Urdulizen, Santurtzin, Algortan... Besteak beste, Txapelpunk eta Ken Zazpi taldeak batera aritu dira. **Euskal musikaren egoera:** "Maketek ez dute funtzionatzen. Bestetik, egoera latza da: ia ezinezkoa da diskoak saltzea, ezinezkoa da dohako merkatu bati aurre egitea". m

Harremanetarako: 637 111 221
www.beforce.iespena.es


diskoak

The diary of Alicia Keys
Alicia Keys
BIMAG



Alicia Keys-en bigarren disko honek hip-hop erako bidea hartuko zuela zioten zurrumurru- riek, baina norbait ikaratu egin zen; ez da harrizkoa: aurreko diskoak 7 milioi ale saldu bazituen, zertarako esperim- entuak? New Yorkeko abeslari gaztea erosoago sentitzen da soul klasikoa eta baladak egiten rapeatzen baino; hala ere, eskertuko genuen ausardia apur bat.

What's wrong with...
Van Morrison
EMI



Bere diskoetxe berriaren filsofiagaz bat eginez (Blue Note ospetsua), Duke Ellington-en arima eta Frank Sinatra-ren dotoretasuna uzartu ditu, blues, r&b, pop eta jazz klasikoetan murgilduz. Morrison-ek hedabideak kritikatzan jarraitzen du (*Too many myths eta Fame*), baina bere buruaz barre egiten ere badaki (*Whinin' boy moan*).

60ak + 2
Mikel Laboa
Elkar



Euskal kantagintza berriaren aita dugun Mikel Laboak 21 abestiko bilduma erakargarri eta mamitsua eskaini digu, bere lehen sorkuntzak dakartzana: horien artean, *Oi Pello, Pello, Egun da Santi Mamiña*, *Haika mutil*, *Bagabiga-higa eta Txoria txori*. Bitartean, abeslari donostiarra hurrengo disko baterako kanta berriak atontzen dabil.

Liburua > Zaramaren historia



Liburu euskarrian dugu orain Zarama taldearen abeslari Roberto Mosok idatzitako *Flores en la Basura*. 2002an idatzi bazuen ere,

sarean bakarrik irakurri ahal izan da orain gutxira arte. Euskal rock talde klasiko horren ibilera eroak batzen ditu liburua, 80ko hamarkadako garai zoro haien nondik norakoak: Eibarreko, Santurtziko eta beste hainbat leku eta egoeratako hamaika bizipen gogoangarri. *Flores en la basura* izenburua Sex Pistols-en kantu baten hitzetatik hartu du Mosok; hala dio abestiak: "Loreak zaraman gara, pozoiz tanta bat zure giza makinan".

Bilduma > Metak 2001-03

Metak disketxeak kaleratu berri du bere katalogoaren bilduma. Hiru urteko uztaren adierazle da bilduma hau. 24 talderen abestiez osatua da diskoa eta 79 minutuko iraupena dauka. Diskoagaz batera 48 orrialdeko liburuxka eta DVD bat dakartza bildumak. Liburuxkak bilduma osatzen duten talde bakoitzaren informazioa eskaintzen du, lau hizkuntzatan. Bestalde, DVDa hiru ataletan banatuta dago: alde batetik, zigu- luaren eta azpizigiluaren informazioa eta tal- deen berri; bestetik, 13 bideo-klip, eta azke- nik, Pil Pil Session-ek argitaratutako saio bakoitzaren kantak; hiru gutzira.

www.musikametak.com

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Egunerokoa (XIV)
Urteurrenak

Urteurren eta egun seinatuen arabera antolatzen du bere bizitza. Urteurren eta egun seinatuek adierazten diote noiz maitatu, noiz triste jarri, noiz gogoeta egin. Urtarrilaren 1a iristen den bakoitzean, egutegia hartu eta errotulki gorri azpimarratzen ditu gogoan hartu beharreko datak. Urtero, erritu bera errepikatzen duenean, lagunak ezin du bere harridura ezkutatu. Sekula ez da bat horrelakoetara ohituko. Askotan esan dio urteurren eta egun seinatatu horiek ospatzeak ez dutela pertsona hobea egingo. Askozaz politagoa dela inolako aitzakiarik gabe pertsona batekin gogoratzea, gertatu diren hainbat bidegabekeria eguneratzea. Gainera, urteurren eta egun seinatatu horietatik dezente amarru publizitarioak besterik ez dira. Hots, San Valentín eguna baino gehiago Corte Inglesaren eguna ospatzen da otsailaren 14an. Alabaina, jendaurrean inoiz aitortuko ez badu ere, lagunak izugarri atsegin ditu horrelakoetan jasotzen dituen opariak. Tira, gehiagotan egingo balizkiote, hobe. Eta egia osoa esaten jarrita, amarru publizitarioaren kontua urteurren edo egun seinatutaz ahazteagatik bere burua zuritzeko ipini ohi duen aitzakia besterik ez da. Bat-batean, hutsean geratu dira bere teoria guztiak. Noraezean dabil. Arineketan joan da BBKra, ea egutegiren bat geratu zaien soberan. Etxera bueltatu, errotulki gorria hartu eta egunak azpimarratzeari ekin dio. Harridura aurpegiz begiratu dio lagunak, urteurren eta egun seinatuen amarru publizitario askatzea lortu duenean bestea tranpa berean erori dela konprobatzerakoan. 4

Sonia Gonzalez

“Ugerra eta kedarra” bere lehen eleberria aurkeztuko du **Algortan** martxoaren 3an

Herdoilduta eta ke-aztarnen koloreetan margoitu du Sonia Gonzalezek Bilbo bere lehen eleberrian. *Ugerra eta Kedarra* iazko irail aldera kaleratu zuen Ezkerraldeko idazle gazteak. Bere lehen eleberria da, baina ez bere lehen argitalpena. *Sagarroi* poesia liburua plazaratu zuen 2002an, aurreko urtean Euskaltzaindiaren Felipe Arrese Beitia saria bereganatu ostean.

80ko hamarkadako Bilbo aukeratu du Sonia Gonzalezek lehen eleberriko oholtra moduan, Alde Zaharra eta “Bilvi” bilgune

«80ko hamarkadako Bilbo, gaueko kale-giroa, drogak, egoera politikoa...»

ezagunak. Gauaren aterpeko kale-giroa; tabernak, giro politiko nahasia, drogak, sexua... Pertsonaia grisen istorioak batzen ditu *Ugerra eta Kedarra*; Kat drogazale kinkia eta Eñaut etakidearenak, besteak beste. Gonzalezek, muturreko egoeretan dauden muturreko pertsonaien istorioa kontatzen duela esan du hainbatek; ostera, muturrak norbanakoak bere erara jartzen ei ditu. Eta, besterik ez bada, hurbileko gertaerak, musi-




Argazkian, Sonia Gonzalez

ka taldeak eta lekuak antzemango dituzte askok. Baina, horri guztiari buruz, Sonia Gonzalez bera arituko da Aldai Kultur-gunean (Algorta) martxoaren 3an. Zita 19:30etan jarri du Bizarra Lepoan euskara elkarteak, eta Irakurzaleen Txokora gonbidatu dute Barakaldoko idazlea. m

SONIA GONZALEZ

- Barakaldotarra. Euskal Filologia ikasi du.
- Euskaltzaindiaren Felipe Arrese Beitia saria (2001).
- *Sagarroiak*, poesia liburua (2002).
- *Ugerra eta Kedarra*, lehen eleberria (2003).

liburuak



Hiruko
Iñaxo Borda
Alberdania

Liburu hau osatzen duten hiru testuek trintxera bakarti batetik idatziak dirudite. *Herriak bizi behar du* (narrazioa), *Harpe ilunetik ateratzeko* (saiakera) eta *Elpides* (antzerkia) kontakizunetan gaiztakeria politiko apur bat aurkituko du irakurleak.



Greta
Jasone Osoro
Elkar

Oskarrek iraganagaz daukan lotura bakarra Greta da, amona Sararen dendako manikia. Ordu luzeak ematen ditu hari begira, haregaz mintzatzen, hura janzen eta garbitzen. Baina Oskar ez dago erotuta, eta ezkontzekotan da betiko andregaiagaz.

Asteon >

Telebista aldizkaria

Euskal Herrian **zabalkunde handien** daukan **euskara hutsezko** astekaria da: **75.000 ale**

Telebista oinarri eta berbagai duen euskarazko aldizkari tematikoa jaio da: *Asteon*, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak argitaratzen duen astekaria, doan banatzen da barikuero. Hasierotan 75.000 aleko tirada dauka, eta urtea amaitu baino lehen 100.000 alera heltzea da arduradunen asmoa. Euskal Herrian zabalkunde handien daukan euskara hutsezko aldizkaria da, eta Jasone Osoro idazlea du zuzendari astekari tematikoa honek.

«48 orrialdeko euskarazko telebista aldizkaria da eta Euskal Herria du abiapuntu»

Asteon-en egitura hiru ardatzetan banatzen da: alde batetik, Magazina. Bertan telebista munduko pertsonen eguneko elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak izango dira. Bestetik, iritzia eta generoak; ardatz honetan telebistako programazioa generoko landuko dute astero: zinea, telesailak, kirola... barne direla kolaboratzaileen iritzia ere. Azkenik, Parrilak azalduko du eguneko Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako telebista kateen programazioa. Guztira 48 orrialdeko euskarazko telebista aldizkaria da. Euskal Herria du abiapuntu, eta Jasone Osoro zu-



Jasone Osoro, Asteon-en zuzendaria

zuzendariak adierazi duenez, “*euskal herritarrek izango dute lehenbizina, euskaraz aritzen direnek eta Euskal Herrikoak izanik kanpoan lanean dauden profesionalak*”. Hala ere, ondo zehaztu gura izan du: “*Gure ardatza telebista da, ez ETB*”. m



- Barikuero doan banatuko da
- Jasone Osoro idazlea da Asteon-en zuzendaria
- Topagunea euskara Elkartearen Federazioak argitaratzen du
- Lehen zenbakia kalean da dagoeneko

aldizkaria >

Gazte News

Gazte News, gazte-txartela duten gazteei zuzendutako aldizkari berria kaleratu du Eusko Jaurlaritzak. Gazte-txartelak eskaintzen dituen abantaila eta deskontuen berri ematea da aldizkariaren asmoa. Gazte-txartela Eusko Jaurlaritzak duela 17 urte ateratako ekimena da, 26 urteko beheko gazteetat pentsatua dagoena. Gazte News doan banatuko dute institutu, gazte-zentru eta unibertsitateetan. Gaur egun, 4.000 bat gazte gozatzen dute txartelak eskaintzen dituen abantailak. Baina sarritan, gaitza da abantaila eta deskontuak ote dauden jakitea; horrenbestez, aldizkari honek horren guztiaren berri emango du.

aldizkaria > ESETÉ



Hiruhilabetekari tematikoa da Eseté aldizkaria. Arduradunen esanetan, “mundua ikusteko eguneroko begirada ironiko, kritiko edota jakinguruz bete” urtariletik kalean da *Dodecasexual*, urteko lehen alea. Bestetik, Etecé magazina dago. Etecé orain arte Esetéren direktorioa izan da, baina orain banandu egin dira. Bertan, zine, musika, arte, liburu eta abarren gaineko albisteak lantzen dituzte. Euskal Herrian, Bartzelonna eta Madrilan banatzen dira. Eseték 5 euro balio du eta Etecé doakoa da. 15.000 aleko tirada dute eta kiosko eta liburutenda espezializatuetan dago salgai.

Informazio gehiago: www.esete.net

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Koska Irratia	104.1
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0
Gorliz Irratia	107.8

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

01 SOPELNETs.L.



Jokoak sarean ¥
Txapelketak ¥ Internet ¥
Txat ¥ E-mail ¥ Lanak ¥
ordenagailuen salmenta
zerbitzu teknikoak
kontsumitzeko gaiak, zure

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

94 676 00 62- Fax:94 676

irabazi UKrekin

MUGI

FISIOTERAPIA ZENTRUA

x Tendinitis Esgintzeak
x Erreuma x Kiroleko

deitzen duen
lehenengoak
masai bat debalde
irabaziko du!!

94 491 13 37
aldizkaria@euskalnet.net

Mendieta 2, SOPELANA 17 67



Sarrerak debalde!

01 astelehena: GAZTEBI 2004
THEE SILVER MOUNT ZION MEMORIAL ORCHESTRA
AND TRAJA-LA-BAND 2 sarrera / 21:00

04 osteguna: KURATA & ZEIN
2 sarrera / 22:00

07 igandea: GAZTEBI 2004 -ALEX
KID 2 sarrera / 21:00

94 491 13 37

Kafe Antzokiak
antolatutako ekitaldietarako sarrerak lor ditzakezu.
UKra deitzen duten pertsonen artean bina sarrera
zozketatuko dira

[sarean]

Webgune.net-eko webguneak

Kaixo.com atariak geure webgunea doan sareratzeko aukera jari digu eskura

Kaixo.com atari aitzindaria da Interneten. Euskal erabiltzaileok 1997tik ia denetarik aurkitu ahal izan digu webgune elebidun honetan: bilatzailea, emaila, berriak, izendegia... Oraingo honetan Kaixok zerbitzu berria dakarkigu: doako euskarazko webguneak egiteko eta kudeatzeko sistema: *Webgune.net*. Hau da, web orrialde propioa izan nahi duenak sistema honen bidez 10 'mega'-ko hostatze zerbitzua lortuko du, inolako publizitatea jarri behar gabe. Gainera, sortutako webgune horien helbideak dotoreak dira: *zureize-na.webgune.net*.

Erabiltzailea oso trebea ez bada, bertan aurkituko du guztia egiteko laguntza, eta gunea kudeatzeko, web orrialdea edo FTP delako sistema erabili daitezke. Betebeharreko baldintzak gutxi dira: webgunea



www.webgune.net

euskaraz soilik egitea eta eduki pornografikorik edota musika eta programak ez eskaintzea. Hortik aurrera, irudimena baino ez da behar. Orain arte hogeitabat webgune sortu dira sistema honen bidez, hainbat gaikoak: Athletic-en gaineko gunea, Esan Ozenki euskara elkarte, Japer zientzia-fikzio, fantasia eta beldurreko istorioduna.... Zurea egiteko prest al zaude? m

webgida

YETI KIROLAK

>www.yetisports.org
Oso denbora gutxian arrakasta lortu du Yetisports delako webgune honek. Flash joko baten bidez, hartz zuri bat gidatu behar dugu, guregana datozen pinguinoak ahalik eta urrunen botatzeko. Nahiz eta oso joko sinplea izan, orduak konturatu barik pasa daitezke jolasean.

EGURALDIA

>www.ehkme.com

Zer nolako eguraldia izango dugu bihar? Zorionez, badira honetaz arduratzen diren profesionalak (nahiz eta, guztiok bezala, noizbehinka huts egin). Euskal Herriko Klimatologia Meteorologia Fundazioko webgunean hurrengo egunetan zer eguraldi datorren ikusi ahal izango dugu. Beharrezkoa da Flash irudietako asko ikusteko.

Sarean aurkitu ditugu >
Denetarik apur bat

Paul Nicholson > EHNEko kidea

“Baserritarrik geratzen ez denean, administrazioak fabrikatu egin beharko ditu”



Paul Nicholson, elikadura-subiranotasunaren gaineko berbaldia emon baino lehentxoago

EHNE nekazal-sindikatu kidea eta Vía Campesina Europako baserritarren elkarteko koordinatzailea da Paul Nicholson 56 urteko lekeitiarra. Orain pare bat urte Arafaten egoitzan sartu zen nazioarteko ordezkari gizona emon zion baserritarren eskubideen alde borrokan urteak daroazan gizon honeri. Algortan egon zen orain gitxi, berbaldi bat emoten, eta bertan harrapatu genuen berbaldi honetarako.

—Neoliberalismoa eta globalizazioa denen ahotan dabilta, baina zer dira zehazki? Zer da neoliberalismoa?

—Gaur egungo kapitalismoaren politika ekonomiko eta soziala. Kapitalismoa liberalizazio ekonomiko eta soziala sortzen dabil, eskubideen liberalizazioa, eta azken batean pribatizazioa, eta beraz, prekaritatea. Lanbaldintzak okerragoak dira ez dagoelako eskubiderik, dena da merkatua. Baserritarrentzat hondamendia da.

—Lehenengo sektorea da neoliberalismoa-

—Baina azken batean, baserritarrei, arrantzaleei... kalte eginez, ez diogu geure janariari egiten? Denok jaten dugu hortik...

—Bai. Orain nazioarteko hiru mugimendu daude munduan antiglobalizazioaren borroka bultzatzen: arrantzaleena, emakumeena eta baserritarrena. Ez dago besterik, ez ekologistak, ez langileak. Zergatik? Eragina gehien jasaten dutenak direlako horiek.

—Baina azken batean, baserritarrei, arrantzaleei... kalte eginez, ez diogu geure janariari egiten? Denok jaten dugu hortik...

—Noski. Munduan, biztanle gehienak baserritarrek eta arrantzaleak gara: %65. Eta kal-

kuluen arabera, baserritarrek ekoizten dutenaren %10 bakarrik da esportaziorako. Elikadura lokala da, ez globala. McDonaldsek ez dio munduari jaten emoten. Eta ez hori bakarrik: elikaduraren inguruan daukagu kultura, jakintza, gastronomia... Azkenean, herriaren nortasuna lurraldea eta elikadura dira. Hori baserritarren lana da, baina baserriko krisia unibertsala da. Europan, esaterako, hiru minuturo baserritar familia bat desagertzen da, eta gure kalkulua da Euskal Herriaren egunero baserritar familia bat desagertzen dela.

«Ez dakigu zer jaten dugun eta ez daukagu eskubiderik jakiteko ere»

—Transgenikoak, McDonalds, hormonak... Zer jaten dugu?

—Ez dakigu zer jaten dugun eta ez daukagu eskubiderik jakiteko ere. Guk eskatzen duguna da hiritarrek zer jaten dugun, eta nork eta zelan ekoizten duen erabakitzeko eskubidea edukitea, baina Munduko Merkataritza Erakundeak galazo egiten du, konpetentzia ez-zilegia dela esanez. Orain logika produktibista absurdo eta arriskutsu batean murgilduta gagoz; behi zoroen gaixotasuna, edo oilo toxikoa, ez dira kasualitatea, logika horren ondorio zuzenak baizik.

—Holan jarraituta, zenbat iraungo du baserriak?

—Ez dakit. Baina esaterako, hemen Uribe Kostan zenbat baserritar daukazu? Nekazaritza oinarritzakoa da ingurumenaren eta osasunaren aldetik. Janari inportatuaren eta gaixotasun berrien arteko lotura argia da. Eta baserritarren borroka oinarritzakoa da. Baserritarrik ez dagoenean administrazioak fabrikatu egin beharko ditu, eta ordurako galduta egongo da kultura inportante bat. m

Berangoko **Jose Zelaia**

“Lehen danak lagunek, danak ezunek”



Argazkian, Jose Zelaia

Jose Zelaia 82 urteko berangoztarrak hainbet urte egin dauz fundizinoan beharrean. Simon Otxandategiren bustoa bera ibiliriko tailerlean dago eginda. Honen gainean eta beste kontu batzuen gainean ibili ginen beragaz berbetan: horietako batzuk kontako doguz zuretzako, irakurle, hurrengo lerroetan.

—Gaztetan, baserrian egin zendun behar?

—Ez; hemen yaio naz, etze baten hor Agarren. Gero gazterik, hamalau urte neuazala, kanpora beharren-ta ibilte ixen naz, kanpon ein dot nik behar beti. Kanpon ibil naz beti eta beste anaje bat bere... Oin difuntok dire, ze bost ixen gara eta oin ya bi baño ez gare bixi, zaharrenak biok. Gero hau pisu erosi gendun, ta hanga beharrak eiteun anaje bat, gaztena, neugaz bixiten zan hemen. Baia gero bera beharren hasi zan bere, ta ganadu kenduitzoen ya. Badire ya... hotamabost urte ingeru ixengo dire hona bizten etor gintzana.

—Eta non egiten zendun behar?

—Beste sozio batez fundiziño bat auki du hor Erandion. Hori busto daune hor elizan, elizan ondon daun busto bat, hori gauk intte dau hirurogeta hemeretzin. Bertan deko numeruk ipintte, non ein gendun behar eta gero fetxa han deko ipintte. Fundiziño auki gendun moldeajea, gauzak itteko... tailerrian lau bostek eitte gendun behar. Han eon nintzen hasi ta akabu arten, ta gero itxi behar neun fundiziño, ordun sozioaz ta bestekaz ein nun tratu bet ta tailerra aurokaz itxi neun ta ni jubila ein nintzen.

—Zaletasunik badekozu?

—Niri afiziño gehienau gustaten dana da

paseo itte. Paseok eitten dodaz, hemeti Fadurati, Iturgixiti... horti yoten naz. Oin klaro, urtek dekoaze lez... ostantzen Galeati ta horti ibil ixan naz. Neu bakarrrik ibilten naz beti, ze neure gusture nabil batera ta bestera; ze ixen naz ademas bastante rapido ibilten ixen nazena. Lehena, txikiteo, ze lehen txikiteo itte zan asko, kuadrillaz kantaten ta... Oingo modun ez, ze ordun danak lagunek, da-

«Elizan ondon daun busto bat, hori gauk intte dau hirurogeta hemeretzin»

nak ezunek, danak konozidu; oin ez, batzuk batera beste batzuk bestera... Ta gero kozinero bere bai, ze txoko bat auki du hor behean; dekou, baia ez dait ze pasko dan oin ze beste handi bet ein deure albon ta jente erdi handi beste aldera pasa da, ta goien bixi direnak hasi dire kejatzen, reforma asko in behar dala...

—Dantzan ere ibili zinen, ezta?

Gerra osten ixen zan, urte euna lehenengo grupo. Mobimentu osten, berrogetahiru-berrogetalauen, ordun hasi gintzen gu yantzan. Kanpora Sopelara ta ostantzen hemeti, es que lehen, herriten, danak auki auren grupo, yaietaroko aurok aiteurena beti. Oin Berangon badau grupo bat, geure atzeti urtieuren.

—Inauteriak direla eta, lehen bazegoen mozorrotzeko ohitura hori?

—Bueno, hemen ez da itten ixen, dozena erdi bai yantzite paseok eta zeran, baia ostantzean... Batzuk bai yantzikez ta maskaririkaz, apur bet eiten zan baia ez hainbeste, karnabalak zerarik hemen ez... Oinarten, ze oin bai badabiltzez jente gehiau. m

Testua: Urtzi Iglesias

Gurberbake ³⁴

BERBA JATOR BATZUK (VII)

Testua: **Xabi Bilbao**

Berbakere 27n eta 30en gure izenondo edo adjektibo batzuk ikusi genduzen, gure parajeko euskeran gauzak eta pertsonak ZELAU(K) -Zelako(ak)- direzen esateko erabilten direzenak. Gaur horregaz kontugez segiduko dogu apur bet. Hemen doaz, ba, beste izenondo batzuk:

• **astokillo**: gauzak buru barik edo inder hutsez —hau da, astok lez— egiten dauzenari geitzen dako.

—*Andregaien urtek direzela ahaztu, ta gánera, diru eskatu berari Sanmamesera yóteko: zu zara astokillo ba!*

• **atxiñeko**: zeozer edo nonor aspaldiko dala adierazoteko erabilten da.

—*Gustoso egon gara, áitxiteri atxiñeko kóntuk éntzuten.*

• **baragarri**: zeozek edo nonok ganorarik ez dekola adierazoteko erabilten da.

—*Kendúzu ori pelikule baragarri bistétik ta imízu gánonazko zéozek, notzík edo.*

—*Zuri grazi iten dotzu, baia nik ezin dot ikusi bere iñ morroi (tipo) baragarri hori.*

• **barrabas**: Gure ez dogun zeozer edo nonor aitetukeran erabilten da, sarri eskla-maziñotan.

—*Zapi katu! Zoz hemétik, katu barrabasa!*

—*Hána horrek Simeone barrabasarrek zelau ostikede solta daun!*

• **balástragu**: gauzak ganora barik, baldar-baldar egiten dauzenari esaten dako.

—*Balástragu ederra ekar dozu itúgiñe konpónduteko: lehen ure, ta oiñ uriole (uholdea) deku!*

• **esane**: esaten dakona egiten daun pertsonari geitzen dako, batez bere umen ganera berba egikeran.

—*Marrázki bizidúnek ikusten egon naz, eta eztaít Sintxan hori ejénplu ona bada ímentzako: esaneke ezta bápere!*

Esaera “Soiñu bako erromeri / Tanbolin bako erromeri”



Zer da bizitze musike barik! Etxen eta ingurun umek daukezenak nahie aukiten daude “musike”, istrumenturik, CDrik eta partiturarik erabili barik: umek ez dire lar diplomatikuk ixeten-eta, zeozegaz konforme ez dauzenen.

(Iñaki Gamindek baturiko esakera bat da hau; beran “Urdulizeko berba eta bizimodu” liburun topako dozue).

I aki
Bitxitegia
Ω
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA
Villamonte T: 4302345
Algorta

moda gaztea
opariak
VIRATI
Torre 2, ALGORTA
T: 94 491 12 71

Errotalde
ileapaindegia
HARTU TXANDA TELEFONOZI!
T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO
GIZONENTZA -
KO MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA
HARTU TXANDA

ALBEkumeak

Martxarako prest!

Aurreko alean Erromo eskoletako 6. mailako taldea ekarri genuen, eta oraingoan bestea. «Martxarako prest» dio izenburuak, eta egia da. Ez dut inoiz ikusi bertsoekin koreografiak asmatzen dituenik, eta hauek bai. Artista hutsak!

Testua: **Nahikari Ayo**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

Bertsoa eta koreografia batera? Bai, jaun-andreok, ondo irakurri duzue. Gela honetakoak edozer egiteko prest egoten dira. «Baina bertsoek erritmoa badute, dantzatu ere egin daiteke, ezta?» Honelakoetan baietzkoa ematea izaten da onena. Nahiz eta erakutsi duten iaioak direla dantzan, abesten ez dira makalagoak.

Ariketak eta bertsoak egiteko orduan ez dute arazorik izaten. Arazoa abestea da. «Bueno, nik azalduko dizut lehenengo zertaz doan, igual ez duzulako ulertzen, bale?» Batzuetan nik baino azalpen gehiago ematen dituzte eta egokiak izaten dira.



Erromoko Eskoletako taldea

Kontuz bertso-adituok, Erromo aldean konpetentzia sortu zaizue!

Kexu ibili dira etxerako lanak edukitzen zituztela-eta, baina beti zintzo-zintzo eginda ekarri dituzte; baten batek baita bidalitakoa baino gehiago ere.

Abesteko lotsa barik, desiatzen egon dira euren bertsoak plazaratzeko. Gela honetakoekin adi ibili, urte batzuk barru bertolariren bat ikusten baduzue taula gainean dantzatzeko, artikulu hau gogoratu, euretariko bat izango da eta. m

«Bertsoek erritmoa badute, dantzatu ere egin daitezke, ezta?»

ALBEko gaztetxoak



Peru Vidal

TXIKITIK HANDIRA

Lehenengo puntua emanda

Urte asko pasa dozuz krossetan korrika, eta igaro dodaz pozik ta irrika. Ikastola askotan eginda bisita, pena ezin dodala berriz errepika.

Lau oinak emanda

Kirola egitea nuen guraria, ta egiten dudala dugu nabaria. Nahiz ta askotan naizen nahikoa nagia, azkenean lortuko dut neure saria.

Azken puntua emanda

Nik kirolari buruz behar dut bertso labur hontan mintza, hastean soilik askotan dago gakoa edota giltza. Jende ugari nahiz ta aspertu hortik etzanda gabiltza, kirola egiten goza daiteke, beraz, aldatu bizitza.

bertso-agenda gaurkotua > www.albegetxo.net



2004 maiatzak 30

* ibilaldiaren kanta



Fredi Paia bertsolari algortarrak jarri dio Ibilaldia 2004ko abestiari letra; doinua, ostera, Xabi Aburrizaga eta Alberto Rodriguez Ander Deuna eta Betiko ikastoletako haurren samen ahotsak, Eñaut Elorrieta, Roberto Moso eta Afrika Bibang abeslarien laguntzaz. Musika arloan ibili dira: Ibon Jordan (bateria), Igor Peña (baxua), Nicoloz Bitchiashvili (biolina), Alberto Rodriguez (gitarra akustikoa eta mandolina), Irkus Ansoategi (panderoa), Harkaitz Martinez eta Igor Otxoa (txalaparta-Oreka tx) eta Xabi Aburrizaga (trikitixa). Abestiko letrari dagokionez, ondokoa dino egileak, Paia: "bizkaiera batu edo literariotik abiatutako hizkera da, ñabadura lokal pare bat gehituta, bertoko euskararen zabalpenari keinu egiteko". Letra sortzeko oinarria Ibilaldiaren logoa ei da: "Lamiñe eta surfaren lokarria ura da... eta olatuei dagokionez, abestiaren mezu nagusiaren sinbolo dira; belaunaldiz belaunaldiko euskararen trasmisioaren metafora izan gura dute".

* kantaren letra



Haurrak kantaren grabazio egunean

Ahate oinak taularen ganean ule luze beilegia olatuen artean itsosoak Barinatzen jotzean euskara daroa bitsean.

Urrezko orraziaren distira Lamine dau urezko ispiluari begira Ibaizabaletik Kantaurira Ibilaldira, ibilaldira!!

Itsosoak olatuak dakarz Belaunaldiz belaunaldi herri honek euskaraz Kantu, dantza, barre eta jolas Heldu alkarregaz, heldu alkarregaz.

(Leloa) Bizkaiko ikastolen jaialdian Ander Deuna ta Betiko abian Alkarregaz heldu ibilaldian Gure berbak aurrerantza dagian Urrezko orraziaren distira


Lamine dau urezko ispiluari begira Ibaizabaletik Kantaurira Ibilaldira, ibilaldira!!

(Leloa) Bizkaiko ikastolen jaialdian Ander Deuna ta Betiko abian Alkarregaz heldu ibilaldian Gure berbak aurrerantza dagian.

Itsosotik salto hondartzara Labarretik gora doaz Lamine ta euskara Itsasgora datorren erara Olatuetatik plazara.

Plaza jendez beteten hasi da Sokorrua zabaldu da euskaldunon herrira Santa Mariñetik Kurkudira Ibilaldira, Ibilaldira!

Fredi Paia

PROP & BERTA
filma euskaraz

Ikusle guztientzat egokia, bereziki 3 urtetik 10 urte bitartekoentzat

Bilboko Mikeldi Multizinemetan ikusgai!!




gaizka escudero / villabotas-ekoa

Kalabazin krema

Negua da oraindik, eta negua da kalabazinaren (kuiatxoaren) sasoi, barazki gozo eta osasungarria. Plater hau presatzen hasteko, ipini sutan lapikoa gurin apur batekin. Gero tipula eta porrua ondo txikitua, eta okela salda apur bat gehitu (ez badaukagu, *starlux* zati bat erabili). Hau guztia su ahulean eduki dena bigundu arte. Gero patata zatikatua gehitu eta egiten itxi apur bat gehiago. Azkenik, kalabazina dadotan zatikatua erantsi eta egiten utzi, ondo bigundu arte. Dena eginda dagoenean txinotik pasa edota batidorarekin ondo irabiatu. Platera laguntzeko, frijitu ogi zatiak eta gaintik bota kremari. On egin!

osagaiak

Kalabazina (kilo bi) • tipula • hiru porru • patata bi • gurina • okela salda



itsaso arana / jolastoki-koa

Jatetxean kontuan hartzeko aholkuak

1. Jatetxeak ardoa gordetzeko leku egokia ez badauka, ez eskatu ardo zaharrik, nahiz eta prezio onean egon.
2. Eskatu beti ardo botila mahaian jartzea. Ardo zuriek kubiteran egon behar dute beti.
3. Lasai eskatu ardo ona ardandegi klimatizatua edo bodega duten jatetxeetan.
4. Ez zaitetz markarik gabeko txupito, fruta likore edo patxaranaz fidatu. Hobe da marka ezagun bategatik gehiago ordaintzea, edo kalitatekoa ez bada edaria itzultzea.
5. Ez zaitetz fidatu etiketarik gabeko etxeako ardoaz: ezinbestekoa da bodegaren izena jakitea.
6. Ez zaitetz fidatu menua kontuan hartu barik ardo bat eskaintzen duen jatetxearen aholkuaz.
7. Ez zaitetz fidatu marka oso ezagunak baino ez dituen jatetxeaz.

Temperaturarik egokienak

- Beltzak 16 eta 18 gradu artean edan behar dira.
- Zuriak 8 eta 10 bitartean.
- Gorriak 12 gradutan.

Ardoak tenperatura hauetan edatea oso garrantzitsua da arrazoi nagusi bigatik: tenperatura hotzagoan edaten badira aroma mota asko galtzen dira; tenperatura beroagoan edaten badira, berriz, alkohola erraz lurruntzen da eta jario etilikoek usainema eta dastamena erasotzen dituzte. Horregatik da hain garrantzitsua (ardo bat bere osotasunean gozatu nahi badugu), edateko tenperatura zaintzea. m

Zutarri taberna

Gosari handiak astegunetan eta pintxo ederrak asteakabuetan



Argazkian, Angel Luque eta Blanca Martinez

Orain hiru urte zabaldu zuten Angel Luque eta Blanca Martinezek Zutarri taberna. Gosari handiak, prezio onean, eta pintxo ederrak eskaintzen dituen taberna da. Leku paregabe dago kokatuta: Larrabasterrako etxe berrien auzoko plaza handi batean. Terraza zabala jar daiteke bertan. Barra atzean dagoen Angelek dioskun legez, eguraldi onak eragin nabarmena dauka jendea tabernara hurbiltzeko orduan.

Astegunetan, arrakasta handien gosariak, tortila pintxoek edo/eta otarteko

txikiak daukate; asteakabuetan osterata, mota askotako goi mailako pintxoek hartzen dute garrantzia, besteak beste, krabarroka moussekoek, zainzuri puddingekoek, berenjenaz, perretxikoz eta pernilez egindakoek... Rabak, muskulua eta magurioak ere dasta ditzakegu bertan. Gozamen hauen "erruduna" sukaldari lanetan dabilen Blanca Martinez dugu. m

ZUTARRI TABERNA
Urgutxieta plaza, Larrabasterra

KONTXI
ZUZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara,
Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

Asado
r



¥ Zabalik egunero

¥ Eguneroko menuak

¥ Enpresa menuak

¥ Menuak norberaren gustura

¥ Egunero karta berezia

¥ Gazez dastatzeko menua
astelehenetik ostegunera

¥ Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea



adituak gara
makailo eta
kazolatxoak
prestatzen

Bilbo-Plentzia errepeidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf-94 677 30 09

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

SPL BAR ESPUELA
ITURRIBIDE
BILBAO
• PINTXO GOZO - GOSAK
• OSTEGUN KULTURALAK
• ASTEBURUTAN MARTXOLA
• TELEFONOA: 944150565
• ITXURALDATURIK HATOR.
ELKARTOKIA ETA GIRO JATORRA

EGINKOR
INMOBILIARIA

Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net
www.inmoeginkor.com



ITXASGANE
prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

EREAGA
Bidaiak
Autobusak
T: 94 453 08 16 - 609 405 988
Faxa: 94 453 33 34
GETXO

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak
Andres Larrazabal, 11 AREETA T.: 94 464 89 94
Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T.: 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina
T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Asteburuan ez duzula ligaterik lortu? Lasai, hurrengo parrandan saiatu berriz, zorrea zure alde izango duzu-eta. Bizitza honetan, zerbait lortu gura bada, ausarta izan behar da eta beldurra gainditu beharra dago.

AITZURRA

t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Bikotekideagaz haserretu zarelako ez da amaitzen mundua; hitz eginez gero, oharituko zara egoera ez dela hain larria. Halakoetan umorea ere erabili; gutxienez, une horiek apur bat arintzea lortuko duzu.

GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Nazkatuta zaude, familiak ez zaituelako ulertzen; pazientziagaz hartu, denborak dena konpontzen du-eta. Saltsa guztietako perrexila izatea atsegin duzu, eta ezin da horrela beti izan; noizean behin utzi besteei ere protagonismoa.

META

t



(Irailak 17 urriak 16)
Proposamen berezia egingo dizute; ez pentsatu bi aldiz, horrelako aukerak ez direlako egunero izaten. Azkenaldian, lagunak arraro samar topatzen dituzu, eta agian zer egin duzun pentsatzen hasi beharko zenuke.

OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Beti txoritan egoten zara. Zer darabilzu buruan, *Osoa?* Noizean behin zure ondoan dagoenari ere kasu egin. Baliteke lagun batez arazoren bat edukitzea, baina gaizki-uleratu bat besterik ez da izango, eta laster pasatuko da.

HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Beharraz samaraino zabilzta. Lasai egoteko ordua ailegutzen zaizunean, bestelako ardurak hartuko ete dituzu? Aspaldiko lagun batez elkartuko zara, eta ahaztuta zenezukan hamaika pasadizo ekarriko dizkizu gogora.

LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Oraindik bikotekiderik ez duzula gura diozu, baina inoiz ezin da ziur esan; gutxienez uste duzunean... Egun guztia lo pasatzen duzu, eta ez da harrizkoa, asteburu osoa parrandan ibili ostean. Zer espero zenuen, bada?

HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)
Egunak joan eta egunak etorri, deitu gura diozu, baina ez zara ausartzen; bada lehen pausoa emateko garaia. Diruz asko kezkatzen zara; izan ere, ez duzu ulertzen zelan egiten duten besteek patrikak beti diruz beteak izateko.

ADARRA

t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Izaera biziko pertsona zara; gehiago menderatu behar duzu zeure burua, bestela arazoak izango dituzu, eta larriak gainera. Telebistaren aurrean ordu gehiegi igarotzen dituzula esaten dizute etxean, eta arrazoi apur bat badute.

EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Ezin da beti norberak gura duena egin; batzuetan, amore eman eta lagunek diotena entzun behar da. Egia da gehiegi jateak gizendu egiten duela, baina ez jatea are kaltegarriagoa da; hartu neurriak, *Eguzkia!*

IRATZEA

t



(Abuztuak 18 irailak 16)
Azkenaldian triste zabilzta. Zergatik ez dizkiozu zure arazoak norbaiti kontatzen? Ondo etorriko zaizu. Kirola egitea ona da osasunarentzat, baina azken hilabeteotan mugitu barik egon zarenez, apurka hasi behar duzu.

NEGUA

t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Asko maite zenuen pertsona batez egingo duzu topo; agian, beste aukera bat eman beharko zenioke. Oso egun onak pasatzen zabilzta, eta zeure poztasunagaz besteak ere alaitzea lortu duzu.



mungia

OKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".


Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATU



Ezker eskuin

1. Industriak eraldatzen dituen gaiak. 2. Jausiak. Letra grekoa. 3. Hartuemanak. 4. Euskal Herri hegoaldeko ibaia. Estimatu handiko zur. 5. Nagoela. Zah., zakur. 6. Nork pluralaren araberako atzizkia. ... Robles, Lapurdiko txiste-kontalaria. Bat. 7. Enea. Bizkaieraz, pikeak. 8. Gauza. Saudi Arabiako hiriburua. Lehen bokala. 9. Zero. Gipuzkeraz, gara. Ardi, hitz elkarketan. 10. Arratseko otordu. Landu, apaindu.

Goitik behera

1. Lehenbizikoa. 2. Ebazpean, deliberoa. Euskal alfabetoko letra madarikatua. 3. Horkoari. Letoniako hiriburua. 4. Iparraldean, esaiozue. Erbioaren sinbolo kimikoa. 5. Ba..., haiei banu. Edateko gogo. 6. Animalia konkordun. Kasik. 7. Kalitua, hila. Oxigenoa. 8. Iodoa. Nafarroako ibilgailuetan. Niri, zuen. 9. Nafarroako herria. Bokala. Radona. Kokoriko jarri.

Soluzioak

U	N	O	I	H	V	A	F	A	R	I	A	K
R	T	A	R	A	G	E	R	A	O			
A	V	A	D	R	I	A	D	G	A	I	R	E
I	A	K	N	I	R	E	A	N				
O	R	Z	U	T	Z	E	K	E	K			
O	N	A	V	E	B	R	O	E	B	R	O	
A	K	N	A	M	A	R	E	H	A	R	E	H
O	R	O	K	A	R	I	A	R	O	R	I	A
A	K	A	V	E	N	G	A	L	E	H	E	N

eUSKALDUNON
denbora-pasa eta
hitz jokoan hilabetekaria

IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN 12 ale urtean 30 €

IZEN-DEITURAK
 HELBIDEA
 HIRIA
 LURRALDEA..... P.K.
 TEL. E-MAILUA

KONTU KORRONTEA:.....
 LUMA Aldizkaria, BAGABIGA S.L., 307. Posta Kutxatila 20300 IRUN
 Tel. 943629564 - 943630883 / E-MAILUA: luma@sxedera.com

www.xedera.com



asmatu eta irabazi > **bi lagunentzako bazkari bat**



Nor da?

- Tolosako soprano honek 1990ean eskaini zuen lehen saioa
- Plácido Domingorekin batera abesten du sarri
- 2001ean Musika Klasikoko Artista Onenarentzako saria jaso zuen

> Aurrekoaren erantzuna: Carlos Sobera

> Irabazlea: **Amagoia Hernandez Arze (Leioa) ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
 aldizkaria@euskalnet.net / faxa: 94 491 58 31

Gardoki **Jatetxea**



Mendieta kalea 47

Sopela

Tel. erreserbak: 94 676 07 61
 astelehenetan itxita

San Nikolas ikastola 1985

Aldizkari honetako Getxoko orrialdeetan kontatzen dugun moduan, aurten Algortako San Nikolas ikastolak 40. urteurrena ospatuko du. Urte luze hauetan milaka haur hezi dira euskaraz eskualdeko ikastola handi honetan. Beste edozein argazki aukera genezakeen, baina hau (goikoa) ailegatu da gure erredakzioara. Bertan azaltzen direnak 1972. urtean jaiotakoak dituzue. Hortaz, argazkia egin zenean 13 urteren bueltan zebiltzan haurrak, eta gaur egun, 31 edo 32 izango dituzte. Izan ere, denbora aurrera doa beti eten barik. m

Lehen goi-lerroa: Karmele Ojinaga (irakaslea), Nora Aspuru, Iratxe Urrutia, Gurutze Susaeta, Maite Ramos, Ainhoa San Sebastian, Matxalen Markaida.

Bigarren goi-lerroa: Joseba Onaindia, Leire Iridoi, Galder Larrazabal, Igor Lamas, Kai Solagaistua, Asier Motagoitkoa, Iratxe Borda, Eguzkiñe Aranzibia, Izaskun Garcia.

Hirugarren goi-lerroa: Unai Bidarte, Eneko Bragado, Eneko Zuñeda, Jon Morages, Manu Mier, Karmele Mitxelena, Loreto Kortazar, Idoia Lekube.

Laugarren goi-lerroa: Eduardo San Andres, Iñigo Onaindia, Asier Olea, Andoni Amas, Ibon Irusta, Batxi Uribarri.

Bosgarren goi-lerroa: Xabier Egurrola, Asier Mentxaka, Unai Bilbao, Iker Iturregi, Jose Mari Ararte, Unai Iturri.

IBAN GARATE > komunikatzailea

“Gogokoa dut galduta egotearen sentsazioa”



Definitu ezazu zeure burua berba bitan bakarrik. Axkoittiar petue.

Zein animalia gaz zatoz bat? Txori bizi eta kantari batekin.

Zein liburu gustatuko litzazuke idaztea? Euskarazko ekonomia liburu ulergarri bat idatziko nuke, ez dagoelako.

Eta zein filman egingo zenuke protagonistaren papera? Neure bizitzaren protagonista izatearekin konforme eta harro nago!

Historiako zein pertsonaia miresten duzu?

Jende xumea miresten dut, liburuetan inoiz agertzen ez dena, baina isilean lan handia egiten duena, edozein alorretan dela ere.

Zure jakirik gogokoena. Haragia den bitartean... dena barrura!

Oporretara joateko lekurik aproposena.

Urruti, galduta egotearen sentsazioa gogoko dut, hara edo hona, leku jakin batera joan beharrik ez izatea.

Ileapaindegian, zer aldizkari irakurtzen duzu?

Nahikoa lan izaten dut ileapaintzailearekin hizketan!

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen? Gezurretan aritzea.

Zer janzen duzu lo egiteko? Pijama.

Ezin zaitezke bizi... Lagunik gabe.

Zer gordetzen duzu sakeletan?

Ezer ez, traba egiten dit edozerk (Poltsa txiki bat erabiltzen dut).

Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena.

Mackinac Island-eko (Michigan, AEB) harri-koskorrak.

Zer berri gustatuko litzazuke entzutea albistegi batean?

Euskal Herrian elebidunak garela guztiok.

Ohitura txarren bat...

Denbora nahikoa izan arren, gauzak azken ordurako uztea.

...Eta sineskeriaren bat. Ez dut halakoetan sinesten.

Zertan gustatuko litzazuke haragitzea? Honetan ere ez dut sinesten.

Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa? Ametsak sekula ez ditut gogoan izaten; gainera, inoiz ez naiz amesgaiztoekin esnatzen.

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz? Ba... ez dut gogoan.

Zure azken erokeria. Galdeketa hau erantzuten hastea! m

IBAN GARATE— Ikusle gazteei berba egiten dienean hitanoa erabili ohi du, “*euskarak duen altxorrik handienetako delako*”; horrela, konplizitatea, hurbiltasuna eta konfiantza sortarazten ditu *Betizu* saioan aurkezle lanetan diharduen Iban Garatek (Azkoitia, 1982). Hamabost urte zituela ezagutu genuen, Aitorren pertsonaia antzezten *Goenkale* telesailan; Arraldeko parajeetan hiru urte egin zituen, eta harrezkeroztik *Betizu*-n dabil “*bazterrak nahasten*”. Horiexek izan dira Ibanek orain arte egin dituen lan nagusiak, baina iaz Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eta Emilio Aragón-ek egin zuten *Berunezko soldadutxo*a ikuskizunean kontalari izan genuen. Ikaslea ere badugu: Ikusentzunezko Komunikazioan lizentziatzeko bidean dago.